hiruka

160. zenbakia
2020ko uztaila

MIKEL MANCISIDOR Nazio Batuen Erakundeko kidea

«Giza eskubideetan, urte askoko lanetik datoz lorpenak»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Janire Enzunza, Joxe Belmonte, Xabier Buenetxea, Eunate Muruaga, Izei Azkue, Aritza Bergara, Asier Barruetabeña, Jokin de Pedro

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorlizko Udala · Urdulizko Udala · Barrikako Udala · Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Jairik gabeko uda izango

4

Aurkibidea

4 **Eta aurtengo udan zer?**

14 **Hizkuntzaren zalantzategia**

15 **Gatz-ozpinetan**

16 **Naturaren behatokitik**

17 **Izena duen guztia omen da**

18 **Hirudika: Gure bazterrak ezagutzen dituzu?**

24 **Mikel Mancisidor: «Giza Eskubideen etorkizuna idazteke dago»**

32 **Erreklamatu: «Ez dakigu nolako arazoak egongo diren hegaldiekin udan»**

34 **Euskarabentura, bertan behera**

35 **Udako Bapiruke berrasmatu dute: Udan Jolasten egitasmoa**

36 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

24

Mikel Mancisidor: Giza eskubideez berbetan

dugu aurten?



Ezetz asmatu nongo bazterrak diren!

18

34

Gazteen segurtasuna ezin bermatzeagatik, bertan behera Euskarabentura

35

Bapiruke: «Udako eskaintza berrasmatu dugu»

Eta aurtengo udan, zer?

Domino-fitxen antzera, osasun-krisialdia dela eta, udarako aurreikusitako kultur ekitaldi eta jai ofizial denak bertan behera utzi dituzte Uribe Kostako udalek eta jai-batzordeek, batak bestearen atzetik. Apurka-apurka, datozen hilabeteotarako eskaintza alternatiboa prestatzen hasi dira hainbat udalerritan, hala nola jai birtualak eta ekitaldi xumeak. Bada, zer-zelako uda igaroko dute uribekostarrek bertoko udalerrietan? Zer egiteko parada egongo da, non eta nola? Galdera denei erantzuten saiatu gara hurrengo orriotan.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

COVID-19ak eragindako pandemiak gogor kolpatu ditu gizartearen sektore denak. Eskolak izan ziren lehenak ateak ixten, martxoaren 13an; segituan, sektore publikoko bulego eta eremu denek ere pertsianak zigilatu zituzten. Enpresa pribatu askok ere, nork bere martxan, jarduera eten edo telelana abiatu zuten. Kultura arlokoek, aldiz, konfinamendua arintzeko askotariko eskaintza egitea lortu zuten, euren sektorea etorkizunean arriskuan egon zitekeela jakin arren. Udaldia komodina zirudien, plazak eta antzokiak berreskuratzeko aukera egongo zela uste zen, eta etxean konfinatuta geunden bitartean, ez ziren gutxi izango hilabeteotan herriz herri eta jairik jai dantzan eta alai aurreikusten zituztenak euren buruak. Hala ere, zoritxarrez, koronabirusak ez du indarra galdu, eta oraindino zeresana du, eta izango du, sasoi bero honetan. Domino fitxen antzera, udarako aurreikusitako kultur ekitaldi eta jai ofizial denak bertan behera utzi dituzte udalek eta jai batzordeek, batak bestearen atzetik. Getxoko Andra Mariko festak izan ziren erortzen lehenak. Martxoaren akabuan jai horretako batzordeak zabaldutako oharrean ospakizunon izaera goraipatu zuten, «auzoa lotzeko eta eraikitzeko» ezinbestekoak direlakoan, baita auzotarrak «elkartzeko eta indarrak batzekoa» ere. Hala, «hori ez galtzeko», jaiak bertan behera utzi arren, horien izaera presente izan zuten auzoan eta sinbolikoki festetako zapiak ikusteko aukera egon zen leku askotan. Hortik aurrera, tantaka, herri denetako udalek eman dute erabaki berdinaren berri, mezu berdinagaz: jaiak bertan behera.

Udako jai ofizialik ez da egongo beraz Uribe Kostan, ez behintzat orain arte ezagutu ditugun modukoak. Leioako Lamiako eta Txorierri auzoek daborduko modu birtualean ospatu dituzte jaiak, nork bere etxean egiteko askotariko ekintzakaz. Lamiakoren kasuan, San Maximo jai birtualen hiru eguneko egitarau oparoa prestatu zuten maiatzaren 29tik 31ra. Antolatzaileek online izaerako egitaraua prestatu eta sare sozialen bidez zabaldu zituzten jarduerak, auzotarrek euren etxeetatik jaietan parte har zezaten. Txorierrikoek, aldiz, egun bakarrean pilatu zituzten ospakizun denak, herri-bazkaria eta guzti; patata-tortilla etxeko jangelan jatekoa, noski. Leiho eta balkoien apaingeta-lehiaketaren, tortilla-lehiaketaren eta mozorro-lehiaketaren argazki eta bideoak jaibatzordearen Facebook orrian partekatu zituzten. Hala, herritarren parte-hartzea «oso ona» izan zela goraipatu dute auzo horretako festen antolatzaileek: «Oso pozik gaude emaitzarekin, jai giroa egotea lortu genuen, eta kalean egindako ekintzetan maskarak eta distantziak bete egin ziren».

San Joan jaiei dagokienez, Barrikak ez zuen alternatibarik antolatzeko paradarik izan; Leioak, aldiz, aurreko auzo txikien ildoei jarraituta, jai birtualak egin zituen. Besteak beste, aurreko urteetako jaietako bideoak argitaratzeaz gainera, ekainaren 19tik 24ra leihoak edo balkoiak kuadrillen kamisetak edo beste zerbait ipinita apaintzeko eta horren argazkia bidaltzeko eskatu zuten antolatzaileek, ondoren irudiok sare sozialetan partekatzeko. Gainera, San Joan egunaren bezperan, ekainaren 23an, bakoitzak bere etxetik mugikorraren edo linterna baten bidez herrigunea argiztatzeko

eskatu zuten. San Joan gaua ere modu berezian ospatu zen gainontzeko hainbat udalerritan, osasun-krisia dela eta, ezin izan baita modu tradizionalean ospatu leku askotan. Hala, Getxon eta Plentzian, berbarako, bideo berezi baten bidez gau magiko horretaz gozatzeko aukera egon zen.

UDALEN ETA JAI BATZORDEEN ARTEKO HARREMANA. Udako ospakizun denak bertan behera uzteko erabakiaren berri eman zuten Uribe Kostako udalek maiatzaren erdialdean, udalerrietako jai batzordeakaz adostutako akordioak zirela zabalduta. Hala ere, festen antolatzaile denak ez dira ados egon udal arduradunek egindako bideagaz. Berbarako, Algortako jai batzordeak gogor kritikatu egin du balizko akordio hori eta deitoratu du ez dela adostasunik egon erabaki hori hartzerakoan, ezta harreman iraunkorrik jaiei irtenbide bat bilatzeko asmoz. Algortako jai batzordeko kideek deitoratu dute Udalak erabaki «azkarrak» hartu dituela jaiak bertan behera uzteko. Era berean, udal agintariek prozedura «oso desegokia» erabili dutela salatu dute, hala nola jai batzordeakaz hitzartutako bilerak egun batetik bestera edo egun berean deituta; domeketan urgentziazko bilerak planteatuz; eta egun gutxiko tartea emanez jai batzordeei erabakiak hartzeko. «Gure ustez, funtzionamendu modu horrek ez dio erantzuten jai batzordeen errealitateari eta gure lanarekiko errespetu falta izugarria dela deritzogu. Are gehiago, presiopean eta egoerak baldintzaturik egindako Udalaren eta jai batzordeen arteko kontraste horren emaitza hasieratik idatzita zegoenean: aurtengo jaiak bertan behera uztea, hain zuzen ere». Kontuak hala, Udalaren azken momentuko proposamena «akatatu» zuen Algortako jai batzordeak, «ulertuta hori egin ezean, jaiak linbo batean geratzen zirela».

Azken hilabeteotan egoera berri honetara jaiak egokitzeko lana egin dute Algortako jai batzordeko kideek. Aitortu dutenez, argi izan dute uneoro jaiak ezin izango zirela egin aurreko urteetan bezala, eta kontzienteak izan dira osasun-krisi honek sortutako egoera zein den eta uneoro jarri gura izan dutela herritarren osasuna eta segurtasuna mahai-gainean. Hala ere, jaiek herritarrentzako onura handiak dakartzatela gogoratu dute: «Herritarron arteko harremanak estutu, komunitatea egin, elkarrengandik babestu eta elkarrekin gozatzeko espazioak dira. Gure kaleak aldarrikatzeko egunak dira. Gure herritarrak babesteko uneak dira: komertzio lokala sustatu, ostalaritzari bultzada eman, gure herriko elkarte eta eragileak ezagutu eta euren lana kalera eraman, egoera zaurgarrian dauden gure auzokideak lagundu... Azken finean, jai herrikoiak guztionak diren ospakizunak dira, herria hainbat egunez alaitu eta girotu egiten dutenak. Herriak egina eta herritarrontzako». Balio horiek denak une latz hauetan «inoiz baino beharrezkogoak» direla azpimarratu dute.

Getxoko Udalak aurtengo jaiak antolatzeko diru-laguntzaren aurrekontuaren % 15 emango die iraila bitarteko batzordeei ekitaldi programa bat gauzatzeko, higiene- eta osasun- bermeak mantenduta. Programa horrek honako ekitaldi hauek har ditzakeela ohartarazi dute udal arduradunek: *streaming* bitartez eskainitako ikuskizunak, online lehiaketak, merchandisingaren diseinu eta ekoizpena eta sare sozialen bitartez jaiak gizarteratzeko bideo baten grabaketa. Horren harira, Algortako jai batzordeak azpimarratu du uko egingo diola aurten Udalak jai telematikoak antolatzeko proposatutako diru-laguntza horri. «Diru-kantitate hori herriko sektore kulturala indartzeko bidera dezatela». Horren ordez, batzordeko kideek gogoratu dute uztailaren 29tik abuztuaren 2ra izango zirela aurten Algortako San Inazio jaiak eta egun horietan zehar jaietako zapia kalera ateratzera animatu ditu herritarrak jai batzordeak, jantzita, balkoian jarrita, tabernan zein komertzioetan. Horretarako, zapi ugari jarriko dituzte salmentan eta horiekaz lortutako dirua udalerriko komertzio zein elkarteei ekarpena egiteko asmoa dute. Izan ere, jai batzordeko kideek azaldu dutenez, herriko jardun ekonomikoa eta kulturala sustatzea zen ospakizunak egokituta mantentzearen helburuetako bat.

JAIETARAKO AURREKONTUAKAZ, ZER? Udalerriaren arabera, jaietarako bideratuta egongo ziren aurrekontuen zatia leku batera edo bestera bideratuko dutela adierazi dute udalek egunotan. Hala, berbarako, Leioan eta Erandion tokiko ekonomia suspertzeko eta COVID-19 pandemiaren ondoriozko krisia gehien jasaten dutenei laguntzeko erabiliko dutela azaldu dute. Iban Rodriguez Leioako alkatearen esanetan, hartutako neurriak laguntza-politika berriak diseinatzeko balioko du, daborduko iragarri direnak indartzeaz gain. Erandioko Udalak eta auzoetako batzordeek elkarregaz sinatutako idatzian, aldiz, azaldu dute jaietarako izaten diren laguntzak osasun-krisiaren ondorioak arintzera bideratuko direla. Era berean, jaien arima, izatekotan, «ekimen apalagoen» bidez islatuko dela iragarri dute.

Getxoren kasuan, jai batzordeei festa telematikoak antolatzeko emandako diruaren gainerako aurrekontua udalerriko kultur sektorea sustatzera bideratzeko konpromisoa hartu du Udalak. Kultur Etxeak azaldu duenez, proposamen tekniko bat lantzen ari da «ahalik eta lasterren» bideratzeko konpromiso hori.

UDARAKO KULTUR ESKAINTZA, «BEHARREZKOA». Datozen hilabeteotan kultura kalera ateratzeko apustu argia egin beharko litzatekeela uste du Ainhoa Ortells kulturgile algortarrak: «Kulturak alaitasun apurtxo bat ematen dio jendeari, eta umeentzat oso garrantzitsua da zerbait egitea. Tabernek eta komertzioek ere eskertuko lukete zerbait egitea; kalea dinamizatzea beharrezkoa da, are gehiago orain». Metro eta erdiko distantziak mantendu, maskarak eraman, eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoak eskura utzi... Osasunerako segurtasun-neurri denak betetzea oso zaila ez dela dio algortarrak, «lehen bazeuden betebeharreko lege batzuk; orain beste betebehar batzuk daude, apur bat konplexuagoak, baina lan eginda aurrera atera daitezke». Udako festei dagokienez, herri izaerako jaietara bueltatzeko unea dela dio kulturgileak, «txikitasunera, lokalera». Oso jendetsuak ez

Uda honetan ezin izango ditugu ikuskizun jendetsuak topatu gure herrietako kaleetan; hala ere,

«Ezer egiten ez bada ez delako nahi da, besterik ez»

Kultur egitaraua bidera daiteke gaur egungo egoeran? Aukerak egon badaude; lehenagotik bazeuden lege batzuk jarraitu behar zirenak. Orain badaude beste neurri batzuk, konplexuagoak direnak, baina lan eginda aurrera eraman daiteke dena.

Zeintzuk dira neurri horiek? Metro eta erdiko distantzia mantendu, denek maskarak erabiltzea eta, kultura arloan, ikusle denak eserita egotea. Eskuak garbitzeko gela jarri eta horrekin denarekin zerbait egin liteke.

Zergatik ez da ezer antolatzen leku askotan? Kulturak ekonomikoki balio handirik ez duelako. Tabernek eta komertzioek eskertuko lukete zerbait egitea; kaleak dinamizatzea beharrezkoa da. Alaitasuna emango luke denon bizitzan.

AINHOA ORTELLS
KULTURGILEA

bestelako kultur eskaintza osatzen ari dira udalak eta jai batzordeak, besteak beste.

Faltan botako ditugu udako ohiko lehiaketa gastronomikoak. Hainbat udalerritan modu telematikoan egin dituzte horiek.

diren ekitaldiak egin daitezkeela uste du Ortellsek. «Sortzailea den jendearekin berba egitea besterik ez dago ikusteko mila aukera daudela. Buruari eragin eta alternatibak sor daitezke, mila adibide dago munduan. Ezer egiten ez bada ez delako nahi da; ez da ezinezkoa».

Apurka-apurka, udarako eskaintzaren berri ematen hasi dira hainbat udalerritan, hala nola Sopelan: ekainaren 27tik hasita, eta abuztuaren 16ra bitartean, aire zabaleko hogei kultur emanaldi inguruk osatutako programazioa egingo dute, Udalak antolatutako *Sopela uda kalean* ekimenaren barruan. Horiez gozatzeko gonbidapena hartu beharko da aldez aurretik, eta COVID-19a dela eta ezarritako arauak zorrotz betearaziko dituztela ohartarazi dute. «Musika-hitzorduek, antzerkiek, zineak, magiak, dantzak, bakarrizketek, kalejirek eta haurrentzako hainbat ikuskizunek osatzen dute programazioa», azaldu du Udalak, «guztiak COVID-19ari aurre egiteko osasun eta segurtasun neurri zein gomendioei egokituak». Maskara ipintzea derrigorrezkoa izango da, baita pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia uztea ere, gutxienez. Arau hori betearazteko, hain zuzen, ikusleentzako aulkiak aldez aurretik esleituta egongo dira, eta batetik besterako behar adinako distantziara kokatuta. Edozein kasutan, bizikidetza-unitate bereko kideak elkarregaz jesarri ahal izango dira. «Antolatzaileek ezarritako segurtasun arauak ez betetzeak jardueretan parte hartzeko debekua ekar dezake», ohartarazi dute antolatzaileek. Hitzorduetakoren batera joateko interesa dutenek gonbidapena jaso beharko dute ikuskizun bakoitzaren aurreko eguenetik aurrera, pertsona bakoitzeko bost asko jota. Edukiera bete ezean, ikuskizunaren lekuan eskuratu ahal izango dira gonbidapenak, hasi baino ordubete lehenagotik.

Ildo horretan ere agertu da Gorlizko Udala; oraindino zehaztasun handirik eman ez duen arren, jakinarazi du normaltasun berriari egokitutako aisialdi-egitarau bat eskaintzeko egitarau bat antolatzen ari dela udaldirako. Azpimarratu dutenez, arte eszenikoen arloan (dantza, musika, antzerkia...) eta erakusketak egingo dituzte, besteak beste. Horrez gainera, udako zinea; 3 eta 5 urte arteko umeentzako udalekuak; eta Gazteleku eta Ludotekako zerbitzuak ere mantenduko dituzte.

Udalerriko jaiak bertan behera uztearen erabakia hartu arren, herritar gazteenen gozamenerako egitaraua antolatu ditu udaldirako Erandioko Udalak baita ere, Altzagan, Astrabuduan eta Erandiogoikoan. Zinemari dagokionez, uztaileko lau zapatuetan emango dute, 22:00etan. Uztailaren 4ko eta 25eko emanaldiak Irailaren 23a plazan egingo dituzte, uztailaren 11koa Euskadi plazan eta 18koa Josu Murueta plazan. Kalezale antzerki-zikloa ere izango da udan. Udalak emandako informazioak ez du argitzen zein datatan izango diren emanaldiak; besterik gabe, antzezlanen hasiera-ordua 20:00ak izango dela eta astelehenetan Irailaren 23a plazan, eguaztenetan Josu Murueta plazan eta barikuetan Euskadi plazan egingo direla adierazi dute. Azkenik, Udan Jolasean izeneko tailerrak eta jolasak izango dira, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Astelehen eta barikuetan Josu Murueta plazan, martitzen eta eguenetan Irailaren 23a plazan eta eguaztenetan Euskadi plazan.

ORAINDINO ZEHAZTASUNIK EZ. Gainontzeko udalerri gehienetan ere osasun-krisialdi honetara egokitutako kultur ekitaldien egitaraua antolatuko dutela agindu dute udalek eta jai batzordeek, hala ere oraindino ez dute argitu zelako ekitaldiak antolatuko dituzten hilabeteotarako. Jaiei dagokienez online bidezko eskaintza egingo dute askok; hala ere, kalea berreskuratzeko ekitaldiren bat edo beste ere iragarri dute. Horien denen berri emango dugu jakin ahala HIRUKA webgunean. ◂

Desadostasunak

Jaiak bertan behera uzteko erabakia udalen eta auzoetako jai batzordeen arteko adostasunari esker heldutako akordioak izan direla zabaldu dute herri askotan. Algortan, baina, bertoko jai batzordeak Getxoko Udalaren jarduteko modua deitoratu du, euren hilabeteetako lana gutxietsi eta festa alternatibo batzuk prestatzeko egindako proposamena aintzat hartu ez dutelakoan.

Egoerara egokitzen

Udarako aurreikusitako kultur egitarauak moldatu behar izan dituzte herri denetan. Horiek bertan behera utzi ondoren, apurka-apurka hainbat udal egoera berrira egokitzen diren eskaintza kulturalak prestatzen hasi dira, hala nola Erandion, Gorlizen eta Sopelan. Gainontzeko udalerrietan ere egitarauak prestatzen ari direla diote udalek. Jaiei dagokienez ere, batzordeek egitarau bereziak prestatzen dabiltza egunotan.

Iritzia **Branka**

Turismoa paraje

JANIRE ENZUNZA LANDA Filologoa eta irakaslea

Normaltasun barriaren neurriak hartuta, *Herri txiki, infernu handi* programea eskualdera parajetu da bagilean, 6. denporaldian dagozala. Nortasun handiko lagunak grabau eta alkarrizketatu dabez Erandioko Goierrin, eremu zabaleko herria emoten dauan auzoan. Izan bere, horixe aitatu eban Lizasok hasikerako bertsoan: *Beste herri bat aurkitu dugu Erandio barrenean*.

Posible da eskualdekook inguru horretan sekula ez edo gitxitan egon izana, edo non dagoan gitxi gorabehera jakitea bertako errepide nagusitik kotxez ibilteagaitik; Leioako campuseko joan-etorrian, esaterako. Baina, leku guztietan legez, Goierrin bere badago zer ikusi: San Cristobal baseleizea, probalekua, Mart(iart)uko torrea, Goiherri sokatira taldeak entrenateko lekua... eta, batetik besterako bidean, naturaz eta lasaitasunaz gozatuteko aukerea. Hainbat animalia topau daitekez baserri inguruetan eta landetan: idiak, astoak, behiak, txakurrak, ahuntzak, akerrak, zaldiak, ardiak, etab.

Esan behar dot neu ez nazela bertan ibili orain dala gitxira arte. Itxialdia arindu eta ostera gero eta luzeagoak egiteko aukerea etorri ahala, orduantxe ibili nintzan lehenengoz Goierrin barrena. Eta ostera luzetxua eginda bere, ez neban asti nahikorik eduki gorago izentau dodazan leku guztietatik pasetako.

Halanda ze, eta datozen hiletan turismoa paraje egitea gomendatu dabenez, Erandioko Goierri (hobeto) ezagutu daikezue, eta telebistan agertutakoak bertatik bertara bizi. Gonbitea amaituteko eta Goierriren ezaugarriak laburtuteko, hona hemen Lizaso bertsolariak programean botatako bertso bat: *Leku aparta da kokalekuz, / berezia irudian / freskura dago jendearengan / ta freskura belardian. / Ohitura zahar (t)da herri-kirolen / gordeleku aspaldian / hiritik hurbil, Bilbotik hurbil / Goierri dugu agian / ur geza duen iturritxoa / itsasoaren erdian*.

Iritzia **Krisalida**

Ekialdera begira

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA Idazlea

Zaila da gaur egun idazteko asmoz pantaila zuriaren aurrean jartzea COVID-19 delako horrekin topaketa izan barik. Saihesten saiatu arren, egoitzetako nagusi abandonatu eta hilak datozkizu gogora; Hezkuntzako agintariek, hangoek eta hemengoek, hartu beharko lituzketen erabakiak, gerora hartu ez dituztenak; edota datorren ikasturtea zenbat aldiz diseinatu duten, ratioak, asistentzia txandakatua, otorduak... Gerora babes maskara baino ez geratzeko.

Urrun geratzen zaigu paper higienikoarekiko obsesioa, eta maskararen mespretxua Bai, pandemia honen ostean ere izango da maskara gure artean. Barregarri iruditzen zitzaigun lehen Asia aldean pertsona gaixotuengan ikusten genuenean. Bada, ez egin barre, komunitate kontzientzia deitzen zaio horri. Mundu guztiarengandik ikas daiteke.

Are gehiago, lastima ekialdetik gehiago ikasi ez izana. Beste kuku batek joko zigukeen, eta topatzen garenean ez ginatekeen irrigarri geratuko. Ez naiz ari ospitaleak modu meteorikoan eraikitzeaz, edota jagoletza teknologiko harrigarri bezain beldurgarriaz, edota gure artean ezinezko izango liratekeen bestelako segurtasun neurriak ipintzeaz. Ez dut ezinezkoez hitz egiten.

Eta okerrena: ez genukeen ekialdera begira denbora gehiegi eman beharko, ohitura hori gure artean aspaldi dago eta. Guztiok ezagutzen ditugu kirola bihurtu diren judoa, karatea edo taekwondoa bezalako borrokak, baita praktikatu barik ere. Baina inori ez zaio bururatu kultura horietan errespetua eta adiskidetzea adierazteko modua inportatzea: aurrez aurre jarri, begietara beha eta burua pittin bat makurtu. Guk, mendebaldekoak garenez gero, irribarretxo bat gehi genezakeen, eta agur txit polita izango genukeen, ukitu eta hurbildu beharrik gabe ere. Nork demontre asmatu du, ordea, ukondoen arteko agur ziztrin hori, hezurren arteko ukitu hotz hori? Ergelagorik?

Puntua eta kontrapuntua **Normaltasun berria**

Jairik gabeko uda

Normalidade berri
Baten nola gauden
Jaiak ez egitea
Omen da hoberen
Osasuna bermatu
Behar baita hemen
Baina zalantza bat dut
honekin dena den
jairik ez ospatzea
osasuntsua den

PERU VIDAL GURRUTXAGA
Getxo

Gainetik kendu nahian
erantzukizunak,
datoz prohibizioak
zigor (e)ta isunak.
Entzunaz familia
edota lagunak
kezkatzen omen gaitu
gu gaixotasunak
(e)ta ez auzo zein herri
denen osasunak.

ARITZ LANDETA TERCEÑO
Getxo

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Lehen/Orain **Lutxana, 1925**

Erretratua **Idoia Olabarrieta Arranz** «El Conquistador del Caribe» lehiaketako partaidea

ETB2ko saio arrakastatsuenaren finalaren atarian gelditu da getxoztarra, azkenaurreko egunean kanporatua izan ondoren; egin eta lortutakoaz pozik dagoela dio.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Betidanik izan du gustuko Idoia Olabarrietak ETBren *Conquis* abenturazko *reality show* saioa. Hala, joan den urtean, unibertsitateko ikasketak amaitu ondoren, castingera aurkeztera animatu zen. «Ez nuen lesiorik, ezta konpromiso handirik ere; jada errugbia utzia nuen. Egia esanda, gehiegi pentsatu barik aurkeztu nintzen; aste biko kontua izan zen». Aldez aurretik «bere gauzetan» entrenatzen segitzen zuen, baina partaide gisa aukeratu zutela jakin ondoren, lehiaketako probei begira jarri zen: «Gimnasiora joaten nintzen, baita igerian hasi ere. Eskegita ibiltzeko ariketak egiten nituen eta pare bat alditan abentura-parke batera joan nintzen soketan eta halakoetan trebatzeko». Dieta berezi bat egin zuen baita ere, bost kilogramo irabazteko, gerora programan galdu zituenak.

> «Hasieran zaila egiten zitzaidan nire burua telebistan ikustea; oso urduri jartzen nintzen eta lotsa ematen zidan»

Proba denetatik dueluarena izan du gustukoena: «Oso gogorra izan zen; hainbat egun generamatzan ezer jan barik eta ez nuen ia indarrik». Dena dela, proba denak «oso dibertigarriak» izan zirela aitortzen du: «Lehiatzea gustukoa dutenentzat norbere burua zelan dagoen ikusteko oso proba egokiak dira». Gogorrena, aldiz, lehenengo astea izan zela dio, «behin eta berriz galtzen genuenean eta kanpamendu txiroenean geundenean; oso txarto pasatzen genuen ezer jan gabe eta jendea etxera egunero joaten zela ikustea... Tentsioa nabaria zen». Dena dela, berak uneoro umorea mantendu gura izan du, «edo saiatu behintzat», une latzak eramangarriagoak izateko eta bizikidetza arintzeko; «oso lagun onak egin ditut saioan». ◀

Getxo Bonoak salgai

Ekonomia suspertu nahian

Udalak 55.040 GetxoBono salgai jarri ditu bertoko komertzio, ostalaritza eta enpresetan kontsumoa sustatzeko eta suspertzeko, *Berton erosi!* kanpainaren barruan. GetxoBono 2020 kanpainak urriaren amaierara arte iraungo du, edo bonuak agortu arte. COVID-19aren pandemiak ekonomian izan dituen ondorioen ostean negozioek bizi dituzten inguruabarrak kontuan hartuta jarri da ekimena abian. Bonuak Kutxabanken webgunean edo zuzenean Kutxabanken kutxazainetan eskura daitezke, edozein txartel erabiliz. 40 euroko bonuak egongo dira 50 euroko kontsumoak egiteko eta 20 eurokoak 25 euroko kontsumoak egiteko; txartel bakoitzeko gehienez lau bonu eros daitezke.

Plentzia Ekonomia

Krisiari aurre egiteko laguntza

Pandemiak sortutako krisiari aurre egin eta udalerriko ekonomia suspertzeko 308.000 euroko diru-partida onartu du Udalbatzak, EAJren aldeko botoakaz. Era horretan, premiazkotzat jotzen dituzten 23 neurri jorratuko dituzte, hala nola ekonomia, turismoa, merkataritza, enplegua eta nekazaritzako elikagaien eta artisauen jarduera indartzea. Udal-gobernuak (EAJ) dio plan hori abian jartzea «oso berri ona» dela Plentziarentzat, nahiz eta Udalak finantza-ahalegin handia egin beharko duen. Proposamena aurrera atera da, EH Bildu abstenitu egin ondoren. Horiek, euren aldetik, pandemia hasi zenetik askotariko neurriak jasotzen dituen pakete bi aurkeztu zizkioten udal-taldeari, tokiko ekonomia eta gizartea indartzeko.

Getxo Osoko Bilkuran onartutakoak

Bizikleten erabilera bultzatu gura dute

Zugazarte etorbideak bidegorri bat izango duela eta 2021eko hondartza-denboraldian Ereaga inguruan TAOa ezartzea aurreikusita dagoela aurreratu du Getxoko gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE).

IKER RINCON MORENO ▶

Zugazartekoagaz udalerriko bidegorri-sarea indartuko du Getxoko Udalak. HODEI TORRES

Areetako Zugazarte etorbideak bidegorri bat izango duela aurreratu zuen gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) ekaineko ohiko osoko bilkuran. Hala adierazi zuen Joseba Arregi Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitateko zinegotziak, Elkarrekin-Podemosek bizikletaren erabilera bultzatzeko pizgarri ekonomikoak hartzeko egindako mozioari erantzunez; mozio hori ez zen onartu. Halaber, Arregik adierazi zuen Getxo orduko 30 km/h-ko udalerria izateko lanean ari direla, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako eremua zabalduko dela Ereagan. Ekintza horiek guztiek lotura zuzena dute bizikletaren erabilera errazteagaz eta osasun-neurriak betetzeagaz.

TAO, EREAGA INGURUAN. Horrez gainera, udal-gobernuak adierazi zuen, Ereaga eta Azkorri hondartzetan TAO ezartzeko PPren mozio bati erantzunez, eta TAOren kontratu berriaren pleguen idazketa aprobetxatuz (datorren urtean amaituko da egun indarrean dagoen kontratua), erregulazio-eremu berri bat sortzea aurreikusita dagoela, «Ereagako 3. eremua»; 2021ean ezarriko da erregulazio-gune hori, udako denboraldian, ekainetik irailera, eta ez da dohainik izango auzotar guztientzat. Ereagako eremuan, Portu Zaharreraino, 650 aparkaleku daude. Azkenik, PPren mozio hori errefusatu egin zen.

Abiadura

Getxo 30 km/h-ko udalerria izateko lanean ari direla adierazi du Joseba Arregi Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitateko zinegotziak.

JUAN CARLOS I BORBOIKOAREN BUSTOA. EH Bilduren proposamenez, Getxoko Udalbatzak onartu zuen Juan Carlos I Borboikoaren bustoa Getxoko osoko bilkuren aretotik kentzea. Koalizio abertzaleak aurkeztutako mozioan aipatzen zenez, «larriak dira Juan Carlos Borboikoari eragiten dioten ustelkeria-kasuak, iruzur fiskala eta diru-zuriketa». Horren harira, Suitzako egunkari batek herrialde horretako Fiskaltzak egindako ikerketaren berri eman du; horretan, Saudi Arabiako erregeak Juan Carlos Borboikoa erregeari emandako 100 milioi dolarreko dohaintzaren nondik norakoak azaleratu ziren. Horregatik denagatik, EH Bilduk Espainiako erregea zenaren bustoa udalbatza-aretotik kentzea proposatu du, baita osoko bilkurak onartu ere, talde denen babesagaz, popularrena izan ezik. ◀

Erandio Indarkeria matxista

Sexu-eraso matxista bi izan dira aste berean

Lehenengo erasoagatik protesta egiteko Astrabuduan egindako elkarretaratze zaratatsua. HODEI TORRES

Erandioko herritarrak bitan irten dira kalera egunotan, emakumeen aurkako eraso matxistengatik protesta egitera. Kasuetako batean behintzat, ustezko erasotzailea atxilotu du Ertzaintzak.

UNAI BREA ▶

Ekainaren 24an (eguaztena), eguerdi partean atxilotu zuen Ertzaintzak gizon bat, emakume baten aurka sexu-erasoa egin izana egotzita. Horri erantzunez, Erandioko Mugimendu Feministak egun bi geroago elkarretaratze zaratatsua egitera deitu zuen, Astrabuduako Josu Murueta plazan.

Dozenaka lagun batu ziren protestan. «Zoritxarrez, ez da kasu isolatua», adierazi zuten mobilizazioaren antolatzaileek, «egunero pairatzen ditugu emakumeok eraso matxistak: gutxiespenak, bortxaketak, irainak... Noiz arte?», galdetu zuten.

Sistema kapitalista patriarkalak emakumeak «bigarren mailako herritar» bihurtzen dituela salatu zuten. «Pasibotasunak konplize bihurtzen zaitu» gaineratu zuten, baita azpimarratu ere «erasoei garrantzia kentzean sistema injustu hau» elikatzen dela. «Kontrakoa irakatsi diguten arren, ozen diogu indartsuak garela, eta terrorismo matxistaren aurrean feminismoa dela gure arma».

Konplizitatea

«Pasibotasunak konplize bihurtzen zaitu, eta erasoei garrantzia kentzean sistema injustu hau elikatzen da», aldarrikatu dute.

ZAPATUAN BESTE BAT. Astrabuduan protesta-ekitaldia egin eta biharamunean, zapatuan, udalerrian beste eraso matxista bat izan zela jakin zen. Horrenbestez, Erandioko feministek elkarretaratze zaratatsua egiteko deialdia zabaldu zuten berriro, kasu horretan Altzagako metro-geltokiaren parean, astelehenean (ekainak 29). ◀

Sopela Barinatxe

Luizia izandako eremuan lanak

Ekainaren 6an tamaina handiko lur-zatiak askatu eta jausi ziren Barinatxeko hondartzara jaisteko pasealekuan, eta ordutik, segurtasunagatik, itxita dago haren sarbidea. Zorionez, jausitako lur-puskei segurtasunezko alanbreak eutsi zien, eta horri esker ez zen inor zauritu. Hala ere, luizi gehiago gertatzeko arriskua dagoenez, hegala egonkortzeko lanak hasiko direla iragarri du Sopelako Udalak. Hiru hilabete inguru iraungo dute, eta aurrekontua 240.000 eurokoa izango da. Bien bitartean, hondartzara joaten direnei eskaileretatik jaisteko eskatu diete. Lanek ez dute eraginik izango surf-eskoletan, udal-iturriek argitu dutenez.

Berango Ingurumena

30 kilometro orduko, gehienez

Beste udal batzuen bidetik, hiri-gunean dabiltzan autoen gehienezko abiadura orduko 30 kilometrora jaitsiko du Berangok. Honezkero, gune batzuetan 20koa da gehienezko abiadura, eta hala mantenduko da. Udalak iragarri duenez, laster 50etik 30erako jaitsiera egingo dute Gorrondatxe kalean (Azkorri eta Kurtze artean) eta Simon Otxandategi etorbidean, Axgane inguruan. Sabino Arana kalean ere 30era murriztuko da gehienezko abiadura, oraindino 50eko muga duen zatian, Eroskitik Sopelaraino. Gainerako zatian, hirigune nagusian, abiadura-muga 20koa da orain dela zenbait hilabetetatik hona. Era berean, Simon Otxandategi etorbidearen Merana eskolako inguruan ere orduko 20 kilometrokoa da onartzen den gehienezko abiadura.

URIBE KOSTA Grafikoa eguneratuta ikus daiteke HIRUKA.EUS-en DATUAK: **OPEN DATA EUSKADI · 2020/06/22RA ARTE METATUTAKO DATUAK**

COVID-19 pandemiaren egoera



Udalerria	Positiboak	Hildakoak
Barrika	9	0
Berango	60	0
Erandio	287	21
Getxo	648	40
Gorliz	35	2
Leioa	280	14
Lemoiz	7	0
Plentzia	34	1
Sopela	144	9
Urduliz	31	1
GUZTIRA	**1.535**	**88**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako azkenengo datuen arabera, Uribe Kostako udalerrietan COVID-19 gaixotasunaz kutsatutako 1.535 kasu atzeman dituzte, aurreko astean baino 19 gehiago. Datuok ekainaren 22ra arte metatutakoak dira, herriz herriko zenbatekoak ez baitituzte egunez egun eguneratzen. Era berean, duela gutxira arte Osakidetzak udalerrietako hildako kopuruen berri ematen ez zuen arren, orain ikus daiteke inguruotan 88 pertsona hil direla COVID-19ak jota, denbora tarte-berdinean. Hala, azkenengo astean Uribe Kostako pertsona bi gehiago hil dira, Leioakoak biak, hain zuzen ere.

Urduliz Indarkeria matxistarik gabeko jaiak lortzeko diagnostikoa

Jai parekideagoak gura dituzte

«Urdulizen Jai Berdinzaleak» lemaren pean, genero-ikuspegitik diagnostiko parte-hartzaile bat egingo du Udalak udalerriko jaien inguruan. Diagnostikoan parte hartzeko gonbidapena herritar guztiei zuzenduta dago, eta, zehazki, jaietan parte hartzen duten eragile eta zerbitzu guztiei.

IKER RINCON MORENO ▸

Genero-ikuspegitik egingo duten Urdulizko jaien diagnostiko parte-hartzailearen bidez, helburua da udalerriko emakumeek eta LGTBI+ kolektiboetako herritarrek jaiak baldintza berdinetan gozatzea. «Helburu horri herritar guztien erantzunkidetasunetik eta jaietan inplikatutako funtsezko eragile eta udal zerbitzuetatik erantzun behar zaio», azaldu dute arduradunek. Hori horrela, Urdulizko jaiak diagnostikatu gura ditu Udalak, «ekimenak sortzeko, jai parte-hartzaileagoak, berdinzaleak, inklusiboak eta indarkeria matxistarik gabeko jaiak izan daitezen». Horretarako, «Urdulizen Jai Berdinzaleak» lema aurkeztu dute. Festetako pertsonaia den Kakarraldoaren logoan kokatu dute, eta, bestetik, kolore moreko jaietako zapia gehitu dute; «eskubide berdinen aldeko eta genero-identitate, sexu-orientazio, klase, etnia, kultura, migrazio-estatus, gaitasun, sinesmen-arrazoiengatik edota inolako diskriminaziorik gabeko aldarrikapen feminista irudikatu nahi izan dugu». Azaldu dutenez, kanpainaren logoak indarra ematen dio diagnostikoaren helburuaren berdintasun printzipioari; «izan ere, emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek, instituzioei konpromiso irmoko ariketa egitea eskatzen digute».

Urdulizen konpromiso horiek benetakoak izan daitezen, Udalak berdintasunaren arloko politikak diseinatu eta kudeatu behar dituela ondorioztatu dute. Horregatik, genero-ikuspegitik garatuko den Urdulizko jaien diagnostiko parte-hartzailearen kanpaina aurkeztu dute, «hain zuzen, berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen lagungarria izan dadin, eta, era berean, udalerriko bizitzan pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatzeko».

Diagnostikoa

Egin beharreko proiektua Errotik Kooperatiba feministak diseinatu eta kudeatuko du:

- **Jaien aurretik; jendaurreko aurkezpena, banakako elkarrizketak eta udal-artxiboen berrikuspena egingo dira.**
- **Jaiei dagokienez; ariketa etnografikoa egingo da.**
- **Jaien ondoren; eztabaida-taldea egingo da, berdintasunean oinarritutako irizpide teknikoen arabera hautatutako pertsonakaz.**

COVID-19AK MOLDATUTAKO OSPAKIZUNAK. COVID-19k eragindako egungo osasun-inguruabarrak direla eta, pertsonak pilatzea dakarten jarduerak kaltetu edo debekatu egingo dira aurten, elkartzeko mugen edota urruntze sozialen bidez. Hori dela eta, ez da festarik izango. «Hala ere, herritarrek, bitxikeria zein kontakizun edo objektu mnemoniko ugariren bidez, hala nola argazki, kartel eta etxean gordetzen dituzten bestelako oroitzapenen bidez, erraz gogoratuko dute Urdulizen nola ospatzen ditugun jaiak», iragarri dute udal-arduradunek. «Ondo dakigu herriko jaiak garrantzitsua direla ospatzen duen komunitatearen nortasuna sortzeko eta indartzeko, eta, horretarako, oroimena funtsezko pieza izanen da gure herritarrek jaiak erreproduzitu nahi izateko». Horregatik, diagnostikoak jaiaren oroimenean jarriko du arreta. ◂

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

*Pandemia baten aurrean egongo ginateke

Beti iruditu zait baldintzak zalantza asko sortu izan dituela, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Eta arazoa areagotu egiten da itzuli nahi izaten dugunean. Izan ere, azken boladan gehiegitan erabiltzen dugu baldintza behar ez den tokian. Azter dezagun zergatik.

Gaztelaniaz badago *«condicional de rumor»* delakoa, eta oso normala da horren erabilera mota honetako esaldietan, esaterako: *Según el consejero, estaríamos ante una pandemia*. Euskaraz, ordea, ez da egokia itzulpen hau: *Pandemia baten aurrean egongo ginateke, sailburuak esan duenez*. Kontuan hartu behar dugu berez ez dagoela baldintzarik horrelako esaldietan, eta euskaraz behintzat, honela adierazi beharko genituzke: *Antza, pandemia bat dago, sailburuak esan duenez*.

Hona hemen beste adibide bat: *Musika-talde honen buruak adierazitakoaren arabera, abuztuan aterako litzateke disko berria*. Esaldiaren esanahiari erreparatuta, argi ikusten da ez dela hipotesia, beraz, ez du baldintzarik behar: *Musika-talde honen buruak adierazitakoaren arabera, dirudienez, abuztuan aterako da disko berria*.

Zurrumurruak adierazi nahi ditugunean ere, askotan erabili ohi dugu baldintza. Baina horiek ere ez dira egokiak. Adibide bidez, errazago ulertuko dugu: **Iturri batzuen arabera, Madrilen izango litzateke datorren urteko Kongresua*. Berez ez da baldintza, zurrumurrua besterik ez. Eta euskaraz badugu baliabide ezagun bat horiek emateko: *Iturri batzuen arabera, Madrilen izango omen da datorren urteko Kongresua*.

Aipatutakoez gain, beste itzulpen hauekin ere kontuz ibili beharra daukagu: **16 km geratuko lirateke mugara heltzeko*. Adierak erakusten digu ez dela baldintza, hortaz, *16 km geratzen dira mugara heltzeko*. Hona beste bat: **Solaskidearekin zuzenean hitz egingo lukeen arduradun bat izendatuko dugu*. Hori ere ez da baldintza, arduradunaren lana horixe izango baita. Beraz: *Solaskidearekin zuzenean hitz egingo duen arduradun bat izendatuko dugu*.

Dena dela, ez dira horiek egiten ditugun huts bakarrak. Batzuetan zenbait aditz iraganean jarrita (esan, uste izan...) zer edo zer kontatu nahi dugunean, honelakoak idazten ditugu: **Josebak esan zuen bihar bukatuko lukeela txostena*. Kasu horretan iraganeko gertaera bat adierazteko baldintzazkoa erabiltzen dugu, baina ez gara hipotesi batekin ari, beraz, ez da egokia. *Josebak esan zuen bihar bukatuko zuela txostena*. Bestetan, gaztelaniaz baldintza-kutsua dutenak dauden-daudenean itzultzen ditugu: **Hezkuntza Sailak 200 langile baditu, Nekazaritza Sailak 80*. Hori ere ez da baldintza. Beraz: Hezkuntza Sailak 200 langile ditu eta Nekazaritza Sailak 80.

> Zurrumurruak adierazi nahi ditugunean ere, askotan erabili ohi dugu baldintza, baina ez da egokia. Adibidez: «**Iturri batzuen arabera, Madrilen izango litzateke datorren urteko Kongresua*». Berez ez da baldintza, zurrumurrua baino. Eta euskaraz badugu baliabide ezagun bat hori esateko: «*Madrilen izango omen da datorren urteko Kongresua*».

Kontrakoa ere gertatu ohi da itzulpenekin, baldintza behar denetan ez erabiltzea, alegia: **Gaixotasunaren kasuan, ordezkoa etorriko da*. Euskaraz itzulpen horiek ez dira naturalak. Hobeto horrela: *Gaixorik badago, ordezkoa etorrikoa da*.

Azkenik, eta baldintzarekin ari garela kontuan hartuta, zenbait egituraren erabilera aztertuko dugu. Lehenengoak *bailitzan*, *bailuen* eta antzeko egiturak izango dira. Azken aldian hamaikatxo testutan ikusi ahal izan ditugu horrelakoak, eta egia esan, okerrak ez badira ere, ez da euren erabilera bultzatzen. Eta horixe adierazten du Euskaltzaindiak: «Bazter utzi beharrekoak ez badira, bultzatzekoak ere ez dira». Hortaz, honelakoak idatzi beharrean: **Hemendik segituan alde egin du, tximista bailitzan*. Honelakoak idatzi behar ditugu: *Hemendik segituan alde egin du, tximista balitz bezala*.

Beste esamolde oker bat hau da: *gutxi balitz*. Aspaldian horrelaxe ikusi ohi da idatzita, baina egitura egokia *gutxi balitz bezala* da. **Hori gutxi balitz, akta egiteko agindu zidan zuzendariak. Hori gutxi balitz bezala, akta egiteko agindu zidan zuzendariak*. Hala ere, beste modu askotara eman daiteke informazioa: *Hori gutxi iritzi eta, akta egiteko agindu zidan zuzendariak. Hori nahikoa ez zela eta, akta egiteko agindu zidan zuzendariak. Gainera, akta egiteko agindu zidan zuzendariak. Hori ezer ez balitz bezala, akta egiteko agindu zidan zuzendariak*. Ikusten duzuenez, aukera asko dago informazio bera emateko, ez baitugu ahaztu behar beti dela egokiagoa euskarak berak dituen baliabide aberatsak erabiltzea gaztelaniatik itzultzen ibili beharrean. Ez duzue uste? ◂

Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Soja, zenbatetan erabiltzen duzue?

Soja-saltsak Txinan jatorria duen arren, mundu osora zabaldu den saltsa da sojazkoa, askoren gozogarri bihurtuz. Sortu zenetik gaur egun arte izan duen bilakaera oso handia izan dela esan daiteke, saltsa horren jatorria k.a. 250. urtekoa da eta.

Antzina egiten zen soja-saltsak ez dauka ia zerikusirik gaur egun ezagutzen dugun, ekoizten den eta gure etxeetara heltzen zaigun saltsarekin. Askok pentsa dezakete Japonian duela jatorria, baina, egia esanda, Txinan sortu zen. Horren hasierako helburua zen hainbat elikagai gatzaren bidez kontserbatzea. Izan ere, antzinako Txinan, beste hainbat lekutan bezalaxe, gatzetan kontserbatu egiten ziren okelak, arrainak, garia eta soja-haziak; azken horien soberazko urkaria gozogarri modura erabiltzen zen. Gaur egun dugun saltsa hasierako horretatik aldatu den arren, erabilera nahiko berdina da. Asia inguruko plater eta errezeta askotan gozogarri modura erabiltzen da; hala ere, saltsa-mota asko aurki ditzakegu. Txinan hiru soja-saltsa ezberdin sortzen dira eta Japonian beste hiru. Bakoitzak bere erabilera propioa du baina gehien erabiltzen duguna Txinan sortzen den soja-saltsa bat da, Txinako beste bi soja-saltsen nahasketa dena.

ZEINTZUK DIRA SOJA-SALTSAREN OSASUNERAKO ONURAK? Saltsa horren oinarria, nola ez, sojaren haziak dira; ondorioz, antioxidatzaile indartsua da, gure zelula-ehunaren zahartzea moteltzeko ahalmena duena. Saltsa hau balio biologiko handiko proteina-begetalen iturria da ere eta, disolbatuta dagoenez, digestioa hobetzeko lagungarria da. Elikagai hartzitua denez, hesteetako flora zaintzen duten mikroorganismo onuragarriak ditu; gainera karbohidrato gutxi du, baita koipe gutxi ere. Hala, zapore-ukitua ematen die plater askori, bestelako kaloriarik eman gabe. Horretaz aparte, LDL kolesterola (kaltegarriena) gutxitzen laguntzen duela uste dute aditu askok eta kaltzio-iturri ona ere bada; ondorioz, hezur eta artikulazioetarako gomendagarria da.

Nire kasuan, soja-saltsa askotan erabiltzen dut kozinatzeko orduan. Oliba-olioaren alboan gordeta daukat, ezinbestekoa iruditzen zait eta plater asko gazitzeko gatza erabili beharrean soja-saltsa erabiltzen dut. Egia da ere lan egin dudan jatetxe gehienetan soja-saltsa askotan erabiltzen zela eta horri esker etxean erabiltzeko ideia ezberdin asko eman didatela, adibidez oilaskoa marinatzeko orduan. Horri saltsa-soja nahikotxo eta askotariko espeziak botatzen dizkiot, baita sesamo-olio pixka bat ere. Nahasketa hori orrion aurkeztuko dizuedan errezetan ere aurkituko duzue.

Noodleak

Osagaiak

Noodleak, aza gorria, berakatza, azenarioa, piper berdea, txahal okela, soja-saltsa, sesamo-olioa eta ostra-saltsa.

NOODLEAK AZA GORRI ETA TXAHALAREKIN. Errezeta exotiko hau egiteko, hurrengo osagaiak beharko dituzue: noodleak, aza gorria, berakatza, azenarioa, piper berdea, txahal-okela, soja-saltsa, sesamo-olioa eta ostra-saltsa. Horietako elementu denak ohiko supermerkatuetan topatzeko aukera izango duzue, ez larritu. Platera zelan prestatzen den jakin gura duzu? Goazen bada!

Lehenik eta behin, noodleak lau minutuz egosiko ditugu eta horiek prest ditugunean gerorako gordeko ditugu. Wok gisako zartagin batean, bitartean, sesamo-olio pixka bat botako dugu eta bertan berakatza, piper berdea, aza gorria eta azenarioak salteatuko ditugu, su ertainean. Adi! Garrantzitsua da barazkiak gehiegi ez egitea, ahoan ondo nabaritu ahal izateko eta barazki kurruskariak lortzeko. Behin horiek denak salteatu ditugula, okela gehituko dugu; hori aldez aurretik oso zati txikitan zatituko dugu, ahalik eta denbora gutxienean egin ahal izateko. Ondoren, behin dena prest dugula, aurretik gordetako noodleak botako ditugu. Dena ondo berotuta dagoela, ostra-saltsaren pare bat koilarakada eta soja-saltsa nahikotxo botako dugu. Dena ondo nahasita dagoela, errezeta amaitutzat eman dezakegu. Plater horretaz modu ezin hobean gozatu ahal izateko gomendio bat emango dizuet: gorde fruitu lehor batzuk, txikitu eta denaren gainetik bota; azkenik, martorri apur batekin aurkeztu, itxura paregabea izango du!

Ikusi duzuenez, oso erraza da mota honetako zerbait egitea. Espero dut gustukoa izatea eta guztiok animatzea etxean egitera, on egin! ◂

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Zelako eragina izan du konfinamenduak naturan?

Konfinamenduak Amalurran eta faunan eragin positiboak izan ditzakeela pentsa dezakegu askok, gizakiaren aktibitatea modu bortitzean eten eta lasaitasunean egon delako natura. Izan ere, denok ikusi ditugu ahateak errepideak gurutzatzen dituzten bideoak, edo orkatzak kaleak zeharkatzen.

Askotariko artikulu eta argitalpenetan ikusi ahal izan dugu nola gutxitu den hiri handietako kutsadura atmosferikoa, nola hobetu diren ibaien eta kostaldeko uren kalitatea, baita hondakinik gabeko parkeak ere; horietako testigantza asko argazkietan atzeman ditugu, modu oso bisual batean. Gertuagora joanda, ibaien eta hondartzen ur garden-gardenez gozatzeko aukera izan dugu, baita Algorta erditik zihoazen hainbat animalia ikusi ere. Astrabuduan ahate eme bat topatu dugu, bere kumeen aurretik, eta Berango, Sopela eta Gorlizko lorategietan basurde-taldeak ibili dira. Bestelako «basapiztia» askok Uribe Kostako gainontzeko gune berdeak, eta ez hain berdeak, bisitatu dituzte hilabeteotan.

Zortekoa izan naiz ni, beharragatik landa-eremuetara joateko aukera izan dudalako faunaren ikerketak eta jarraipenak egitera. Horregatik, ez dira gutxi hau galdetu didatenak: «Aldaketa izugarriak nabaritu dituzu faunaren aldetik, ezta?». Horri erantzunez, nire ikuspegia da naturari dagokionez aldaketa handia egon dela; faunari dagokionez, ordea, oso gutxi!

Analisi honetarako, ornodunen eta ornogabeen artean ezberdindu beharko genituzke animaliak. Izan ere, begetazioaren aldaketek eragina izan dute ornogabeen mikrokosmosean, baita ornodun txikienetan ere, hala nola sugandila eta satitsuetan, euren bizilekua baso belarkaretan zein lorategi edo belardietan dutelako. Animalion bizi-zikloa txikia da eta oso bizia lehenengo hiruzpalau hilabeteetan; horiek oso garrantzitsuak dira, batez ere ebakitze-garaia denean eta biozidak eta ongarriak erabiltzen direnean, animalion arerio nagusiak baitira. Horren ondorioz, nabaritu ahal izan dugu zelan areagotu den animalion zenbatekoa, baita horien barietatea eta dentsitatea ere; gure lorategietan batez ere.

Naturan aldaketak atzeman ditudala diodanean, konfinamenduaren garaian lan egiten nuen bitartean hainbat paraje zeharkatzeko aukera izan dudalako da. Inbidia osasungarria eman nezakeen garaiotan, normalean jendez gainezka egoten

> Datozen hilabeteak garai izugarriak dira zuhaitz handien gerizpeez, tximeleten hegaldiez eta Afrikara bueltan doazen hegaztien zeharkaldiez gozatzeko. Gozatu enaren joan-etorriez, sorbeltzen pertsekuzioez eta kukuen kantuez.

diren lekuetan bakar-bakarrik egoteko aukera izan dudalako. Une horietan inguruotako edertasun basatiaren osotasunaz eta bere indar puruaz gozatzeko aukera izan dut.

Baina tira, ikuspegi pertsonal horiez ez dugu eztabaidatuko. Uribe Kostako ornodun handiek, hegaztiak eta ugaztunak, pertsonoi beldurra izateari utzi dioten eta hiriguneetan lasaitasun osoz barneratzeko ohiturak aldatu dituzten edo ez erantzuteko dira lerrook. Nire erantzuna EZ gordina da.

Egia da testigantza asko jaso ditugula horren harira, hiriguneetan animalia basatiak topatu direnak. Baina nik uste dut horren erantzuna dela pertsona gehiago egon dela horri begira, leihoetatik so, edozein ordutan, baita gauean ere; normaltasunean, halako orduetan beste gauza batzuk egiten ibiliko ginateke. Konfinamenduak leihotik begiratzeko aukera eman digu, aurrez aurre dugun zuhaitza aztertzeko eta ikusteko kardamiruen edo txorruen hobi bat dagoela bertan. Edo errekaren ondoan basahateen kumeak atzeman, beti izan direnean hor.

Horri denari, gehituko nioke ernaltze-garaian jazo dela konfinamendua, eta une horietan ikus daitezkeela gehiago animaliak, beldurra alde batera uzten dutelako. Dena dela, aitortu beharra dago hainbat animaliak, nahiz eta normalean inguruotan ibili ohi diren, egunok erabili izan dituztela herriguneetara gehiago barneratzeko, kotxerik eta jenderik ez dela egon aprobetxatuta. Horiexek dira guztiz oportunistak diren orkatzak, basurdeak, azeriak eta lepazuriak.

Gainera, duela gutxiko artikulu batek ikertu du nola hiriko hegaztiek udaberriko kantuen bizitasuna gutxitu dute, karrankaritasuna txikituz eta melodiosoagoa eginez. Izan ere, kotxeak egon ezean, ez dute zarata horiek guztien gainetik egon behar izan.

Argi dagoena da Amalurrak eta berearen zikloek aurrera egin dutela hilabeteotan eta konfinamenduko beste lau hilabete gehiago behar izango direla pertsonok ziklo horien izaera naturalaren parte izateko. ◂



Izena duena omen da Aritza Bergara

Mitoen bidez transmititu dira ideiak gaur arte

Pertsonaia mitologikoekin jarraitu aurretik, gogoratu beharra dugu Jentilak eta Tartalo bezalako tamaina handiko pertsonaiak aurkeztu genituela webgunean. Orain, aldiz, Basajaun eta bere bikotekidea den Basandereren inguruan arituko gara, 2019ko azaroan argitaratu nuen *Jentilak* liburuaren pasartetxo bati esker.

Pertsonaia mitologikoekin jarraitu baino lehen, aurreko artikuluetan, naturaren ostean, tamaina handiko pertsonaiak aurkeztu nituen, hala nola Jentilak eta Tartalo. Euskal Herriak, lurralde txikia izanik, baditu oraindik ere beste izaki erraldoi batzuk bere mitologian. Ondorengo lerroetan Basajaun eta bere bikotekidea den Basandereri buruz arituko gara. Horretarako, 2019ko azaroan argitaratu nuen *Jentilak* liburuaren pasartetxo bat ekarri dut lerrootara. *Euskal Mitologiaren azken sekretua* liburutik ateratako informazioa erabiliko dut pertsonaia berri horiek aurkezteko.

Euskal Herrian zenbait kondaira jaso dira han-hemenkako oihan bazterretan, eta bertan aletzen diren gertaeretan izaki iletsu erraldoia agertzen zaigu, indar basa duena. Oro har, Basajaun deitzen diogu, baina horren ondoan Basandere agertzen zaigu, bikotekidea. Hortaz, ez gara izaki bakar batez ari, Basajendeaz baizik, aspaldi ez dela arte gizakiokin batera bizi izan ziren erraldoi iletsu txima-luzeak, oraindik gogoan ditugunak. Iratiko oihana izakion berezko bizilekua zatekeen, noski. Garbi daukazue euskal izaki mitologikoa dela, ezta?

Baina utz ditzagun Basajaun-Basandereen izenak alde batera, eta azter ditzagun euren ezaugarriak: erraldoiak dira, edo *homo sapiens* deritzogun gizaki modernoa baino puskaz handiagoa bai, bederen; hura baino askoz ere indartsuagoa, askoz iletsuagoa... Zer dakarkizue burura deskripzioak? Itaun horixe egin nion neure buruari aspaldi. Eta halako batean, hara, ezaugarri horiekin bat zetorren hamaika izaki topatu nuen mundu zabalean. Asian Yeti daukagu Nepalen, Yeren Txinan, Almasti Ural mendietan, Barmanu Karakorum mendilerroan; Yowie Australian; Ameriketan Bigfoot legoke, jatorrizko biztanleek Sasquatch deitutakoa (hain zuzen ere «basagizona» esan nahi duena). Hegoaldean, Andeetan, Kunk daukagu. Eta makina bat horrelako, tokian-tokian edonon aurki daitezke-eta izaki edo askazi hau izendatzeko berba bereziak, Euskal Herritik gertu dauden lurraldeetan ere bai, Asturias eta Kantabrian Busgo-



Jentilak sinopsia

Joseba Etxebarrieta EHUko Antropologia Saileko irakaslea lantalde batean sartuko da, zeinaren asmoa izango baita gertakari ilun bat argitzea: idazki batean dago ezkutaturik, eta Aita Barandiaran bera ere isilpean gordetzen saiatu zen. Antzinako izkribu horretan, jentilak nola galdu ziren azaltzen da. Lantaldeak, teknologiarik aurreratuena erabilita, jentilen «alegiazko» akabera gertatu zen lekua topatuko du.

su edo Aragoiko Basajarau, esate baterako. Kondairen arabera, izaki horiek gure endakoak baino askoz aurreratuagoak ziren, eta euskal mendietan finkatu ziren lehenengo gizon-emakumeei jakintza asko irakatsi zieten: nekazaritza, abeltzaintza eta egurra lantzen, besteak beste. Arraza horri esker, gizakiok mendiotan bizi ahal izateko jakin beharrekoa ikasi genuen, eta horregatik dira hain izaki kutunak gure usadioen arabera.

KONDAIRAK DIOENA. Ezterenzubin diotenez, herri hartako behizainek aspalditik ohitura zuten gauetan, deskantsatzera joan aurretik, ogi puska bat uzteko Anxorentzat, bizitokitzat zuen basoko ingurumarietan. Gau batean, ordea, haietatik gazteenak bakarrik utzi zion bere ogia. Gainerakoek, lan egun gogorrarengatik nekatuta, nahiago izan zuten eskaintzarainoko metroak ez egin eta deskantsatzera joan ziren ezer utzi gabe.

Gau hartan bertan, Anxok bere elikagaiak utzi ez zituztenen arropak eraman zituen. Gertaera harekin beldurtuta, gazteari arren eskatu zioten Anxoren haitzulora joan zedila, gainerakoen arropak erreklamatzera. Trukean, erraldoiari txekor bat eskaini zioten ordain modura. Gaztea koban agertu eta Anxori arropak eskatu zizkionean, hark itzuli egin zizkion. Gazteari esan zion beretzat gordetzeko txekorra, baina txekorra makila batekin 101 aldiz jo behar zuela ere. Horixe egin zuen gazteak eta, diotenez, denboraldi bat igarota, 101 buruko behi-taldea sortu zion.

Nire aburuz, erraldoi txima-luzeen inguruko kondairak gizatalde askoren gogoan iltzatuta gelditu ziren antzina, gure askazia, *Homo Sapiens*a, lur azalean beste gizaki edo izaki batzuekin batera bizi zeneko garaian. Neanderthala, Gigantopitekoa, Denisovarra eta beste gure auzokideak zirenekoa. Horregatik aurkitzen da mitoa lurbira osoan, izakion izenak gorabehera. Zeren eta mitoen bidez baino ezin baitira helarazi ideiak antzinarotik gaur egun arte.

Eta zuk, nola ikusten duzu? ◂

Gure bazterrak ezagutzen dituzu?

Uda ezberdin bat datorrela argi dago, jaiak online izango dira, bidaia asko bertan behera geratu dira, eta herri zein kontinenteen mugak itxita egongo dira kasu askotan. Beraz, aukera ona da gure inguruan dauden txokoak ezagutzeko. Galeria honetan joko bat proposatuko dizuegu: ezetz asmatu nongo «bazterrak» diren orriotako irudiak! Sartu gure webgunera eta utzi zure erantzuna.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Mikel Mancisidor NBEko kidea

«Giza eskubideen etorkizuna idazteke dago»

Giza eskubideen alorrean egindako lanagatik Eusko Ikaskuntza Saria irabazi berri du. Hala, ibilbide luze baten aitortza jaso du Mikel Mancisidorrek (Getxo, 1970). Deustun Zuzenbidea ikasten zebilenetik izan du giza eskubideekiko interes bizia (Amnesty International taldearen lehen koordinatzailea izan zen unibertsitatean); azken zortzi urteetan Nazio Batuen Erakundean dihardu, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordean, aditu independente modura.

TESTUAK: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Giza eskubideen nazioarteko araudiaren goi-erpinean haien Aldarrikapen Unibertsala dago. Ez dakit askotan entzun behar izan ote duzun dokumentu hutsala dela. Entzun dut, baina ez da hala. Bai aldarrikapena, bai giza eskubideak babesteko eta sustatzeko nazioarteko sistema osoa, eraikin historikoak dira, gizakiok egiten ditugun gauza guztiak bezala, eta beraz gure erakundeek izan ohi dituzten mugak dituzte. Gizakion aurrerapauso handia da nazioarteko komunitatearentzat garrantzitsuak diren eskubideen katalogo bat zerrendatzea, eta erakundeak sortzea hori kontrolatzeko, errespetatzen ez direnean erantzun bat emateko... Beste kontu bat da inozoak izatea, edo nihilistak (norberaren jarreraren arabera), eta giza eskubideen aldarrikapenari paradisua Lurrera ekar diezagula eskatzea, hori ez baita gertatuko pertsonak pertsona eta gizarteak gizarte diren bitartean, edo, kontrako muturrean, iruzur hutsa direla eta ezertarako ere balio ez dutela esatea.

Egia esanda, munduari begira, sarritan, horixe pentsatzeko gogoa ematen du. Haatik, aurrerapausoak egon badaude. Historia ez dago idatzita, ezta giza eskubideen etorkizuna ere. Aurrera edo atzera egin dezakete haietaz kezka dugun heinean, eta hori da gure erantzukizuna.

Hain zuzen, Nazio Batuen Gutunaren 75. urtemuga izan da joan den astean. Handik etorriko zen, hiru urte geroago, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Orduan jabetu ginen giza eskubide izeneko zerbait existitzen dela? Giza eskubideen historia norberak kontatu nahi duen bezain luzea izan daiteke, beti egongo da aurrekariren bat. Batzuek Hammurabiren Kodea aipatzen dute, esate baterako. Baina tira, aurrerapen handia egon zen XIX. mendean, esklabotza abolitzeaz eta langileen nolabaiteko eskubideak daudela jabetzeaz batera. Zuzenbide humanitarioaren sorrera, Gurutze Gorriaren jaiotza, gatazkek eragindako sufrimenduaz kontzientzia hartzea... Gerran ere, edozer gauzak ez duela balio. Eboluzio bat egon zen Bigarren Mundu Gerraren ostean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalera ailegatzeko; baina bai, giza eskubideen kontzeptu modernoa nonbait kokatu behar bada, 1945eko Nazio Batuen Gutunean kokatu beharra dago. Mundu Gerra amaitu berritan, ideia bat zegoen: zenbait gauza ezin zitezkeela berriro gerta. Giza eskubideak orduan nazioartekotu ziren lehenengo aldiz; Nazio Batuen Gutunak haiek errespetatzeko beharra aipatzen du. Hori bai, behar hori oso orokorregia zen, zehaztu gabea. Zeintzuk dira giza eskubideak, zeintzuk ez? Nola babestu? 1948ko Aldarrikapen Unibertsalak erantzun zion horri. Juridikoki interesgarria da Aldarrikapena ez dela loteslea, ez delako tratatua, baina Nazio Batuen Gutuna bada, eta eskubideok errespetatu beharra dagoela dio. Nolabait, munduaren «konstituzioa» da Nazio Batuen Gutuna.

Ordutik honako ibilbideak, NBEren kanpotik begiratuta behintzat, gorabeheratsua dirudi. Badaude gogoan atxikitzeko moduko une garrantzitsuak, 1966ko itunak adibidez (eskubide politiko eta zibilei buruzkoa, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei buruzkoa), edo, ikuspuntu politikoago batetik begira, deskolonizatze-prozesua, Hegoafrikako arraza-bazterkeriaz Batzar Nagusian hartutako erabakiak... Baina barruan dagoenarentzat etengabeko prozesua da, aurrerapau-

Giza eskubideen NBEko mapa

Piramidea

NBEek giza eskubideen alorrean duen antolakuntzaren goiko erpinean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala dago, «balio politiko handikoa baina juridikoki ez loteslea, ez baita tratatua». Haren azpian daude bederatzi tratatu lotesle, bi nagusiak (eskubide zibil eta politikoena eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalena), eta arlokako zazpi (umeak, emakumeak, migratzaileak...).

Estatuen konpromisoak

Herraialde denak ez daude tratatu denetan. «Arrakastatsuena» umeen eskubideei buruzkoa da, munduko estatu guztiek sinatu dute eta, batek izan ezik. Kide gutxien dituena, berriz, migratzaileen eskubideen gainekoa da, Mikel Mancisidorren esanetan.

soak eta atzerapausoak dituena, eta garrantzitsuena: lorpen historikoak urte askoko lan isilaren emaitza izan ohi dira. Batzuetan, hamarkadetakoa.

Gaur egungo egoera politikoak, zenbait alderditatik begiratuta, Bigarren Mundu Gerraren aurretik zegoenaren antza duela esaten da. Testuinguru horretan, indar handia hartu dute eskuin muturreko zenbait talde politikok, legearen barruan daudenak eta giza eskubideen aurkako pentsamoldea dutenak. Argi eta garbi. Nazio Batuen 75. urteurrena den honetan, artikuluren bat idatzi dut esanez interesgarria litzatekeela garai hartan nazioarteko komunitateak zituen erronkak eta zalantzak berriz plazaratzea, batzuk oraindik baditugu eta. Besteak beste, formalitate demokratikoak aintzat hartzen ez dituzten demokrazia liberalak, batzuek deitzen dieten moduan. Baditugu halakoak Europako ekialdean, baditugu Latinoamerikako herrialde batzuetan Brasilgo kasua da agerikoena; eta aipagarriena, beharbada, AEB da, Trump buru duela. Eskuineko populismo horiek ez dituzte errespetatzen orain arte formaltasun demokratikotzat izan ditugunak, gabeziak gabezia giza eskubideekiko eta askatasunarekiko begirune-faltaren muturreko adierazpideak saihesten laguntzen digutenak. «Ze axola dio poliziak apur bat gogor jokatu badu harekin?», «migratzaileak dira, ez dituzte eskubide berdinak»... Bestetik, egiarekiko, zientziarekiko eta ezagutzarekiko mesprezua dute, *fake news* direlakoen gorakadak erakusten duen bezala. Horiek dira talde horien ezaugarriak. Espainian Voxek ordezkatzen dituenak.

Beharbada ez daukagu giza eskubideen kontzeptua uste genuen bezain barneratuta? Lehen esan dudanez, eraikin historikoa dira giza eskubideak. Amaitu gabea, eta noranzkoa idazteke duena. Atzerapausoak egon daitezke, eta ikusten ari gara populismo horiek boterea hartzen dabiltzan herrialdeetan kolokan daudela egindako hainbat aurrerapen, genero-dibertsitateari errespetatzea eta sexu-orientabideagatik ez diskriminatzea, adibidez. Berdintasun soziala eta migratzaileen eskubideak ez aipatzearren.

Indar politiko horien aurka oldartu beharra dago, giza eskubideen aldeko borrokaren ikuspegitik? Bai, baina kontuz, borroka hori egiteko zenbait bidek kontrako efektua eragin baitezakete, eta haiei indarra eman. Liskarrak elikatzen ditu. Beraz, borrokatu beharra dago bai, baina argitasunez eta euren armak erabili gabe: oihuak, ezjakintasuna, ergelkeria...

Zergatik dute arrakasta? Arrazoi askorengatik. Horietako batzuek zerikusia dute 2008ko krisialdi ekonomikoaren ondorioekin. Eta Europan, argi eta garbi, migrazioarekin. Osagai berri bat, eta paradoxikoa, internet eta sare sozialen eragina da: ezagutza zabaltzeko tresna bikaina dira, baina erantzukizun handiz erabili beharrekoak, bitarteko bat izan baitaitezke sasi-egiak zabaltzeko, guk bezala pentsatzen dutenekin bakarrik harremanetan jartzeko...

Migrazioa aipatu duzunez gero... Gure Europa zaharrak (Mendebaldeak oro har) askatasunen eta giza eskubideen errespetuari dagokionez munduko sistemarik aurreratuena duela esan ohi du harro, baina hor daukagu errefuxiatuen tragedia lazgarria. Zer iritzi duzu gaiaz? Europari egiten zaizkion kritikak bidezkoak dira, ez dago zalantzarik. Bruselari egin dakioke kritika, eta giza eskubideak babesteko sistemari berari ere bai. Berriro diot, hala ere, ez dugula ahaztu behar sistema hori eraikin historikoa dela. Errefuxiatuentzako ostatu- eta harrera-sistema 50eko hamarkadan sortu zen, oso bestelako errefuxiatuengan pentsatuz: sinpletasunez azaltzeko (nahiz eta kontua hain sinplea ez den), bere jatorrizko lurraldean, demagun Sobietar Batasunean, edo 1974ko Txilen, eskubide-urraketa jasaten ari zen den intelektuala, irakaslea, kazetaria... Harrera egiten dion herrialdean bere lanbideari eusteko aukera izango zuena. Gaur egungo errefuxiatuak eta gaur egungo mundua ez dira berdinak, eta XX. menderako balio zuen sistema horrek ez du balio orain, zaharkituta geratu da. Errefuxiatuen krisiak ezbaian jartzen ditu Europako harrera-, ostatu-, eta are, immigrazio-politikak? Zalantzarik gabe. Ezbaian jartzen du Mediterraneoan ezartzen ari diren politiken gizatasuna? Zalantzarik gabe. Kolokan ipintzen du bizikidetza, lehen aipatu ditugun populismoen agerpena dela eta? Zalantzarik gabe. Baina are gehiago: agerian uzten du daukagun harrera- eta ostatu-sistema zahartu egin dela eta ez digula balio arazo berri honi aurre egiteko? Zalantzarik gabe. Arazo berrietarako konponbide berriak behar ditugu, eta gizakiok, zoritxarrez edo zorionez, ez ditugu konponbideak berehala sortzen.

«Zalantzarik gabe, errefuxiatuen krisiak agerian uzten du gaur egungo ostatu- eta harrera-sistema, 50eko

Populismoa gorantz

«Ikusten ari gara eskuineko populismoak boterea hartzen dabiltzan herrialdeetan kolokan daudela egindako hainbat aurrerapen»

Eusko Ikaskuntza Saria eman berri dizute. Saritua izateko aipatu diren arrazoien artean, ura eskuratzeko eskubidearen alde egindako lana da bat. Ura eskura izateko eskubidea giza eskubidea dela oso begien bistakoa dirudien arren, ez da inongo nazioarteko tratatutan esplizituki adierazita egon luzaroan. Zeharka aitor zitekeen ura izateko eskubidea, etxebizitza izate-

hamarkadan sortu zena, zahartu egin dela, eta ez digula balio arazo berri honi aurre egiteko. Konponbide berriak behar ditugu, eta gizakiok, zoritxarrez edo zorionez, ez ditugu konponbideak berehala sortzen». CC-GGIA

koari lotuta, edo elikadura, osasuna edo bizitza bera izatekoari. Baina ez modu zuzenean. Orain dela hamazazpi urte hasi ginen lanean eskubide hori formalizatzeko eta esplizitu izateko; Nazio Batuen Batzar Nagusira eraman genuen, eta hark onartu. Halako onarpen horren emaitza ez da paperezko agiri hutsa, oso ondorio nabarmenak ditu: ura eskuratzeko eskubidea nazioartean aitortu eta hurrengo bost urteetan, munduko hogei herrialdetako konstituzioek jaso dute. Horrek esan nahi eskubide hori bermatzeko sare instituzional eta juridikoa sortu dela herrialde horietan.

Eta bermatu egiten da? Beste lanabes bat da. Giza eskubidea aldarrikatzeak eta haren aldeko sistema antolatzeak ez du ziurtatzen errespetatu egingo denik, esan bezala. Baina 2000. urtean ez zegoen munduan ebazpen bakar bat ere, ez nazioartean (jakina) ez eta ere estatu-mailako erakunde edo auzitegiren batek emandakoa, ura eskuratzeko eskubidea aipatuz. Orain dozenaka daude. Horrek zilegitasun handiagoa ematen

Eskubideez jabetu

«Zenbait herrialdetan, agian torturatuek ez dute gogoan «giza eskubide» kategoria, baina badakite hori bidegabekeria dela»

die ura eskuragarri izatearen aldeko borroka sozial askori, eta euren aldarrikapenak aurkezteko tresna berriak eskaintzen dizkie. Dena dela, aipatu beharra dago ura izateko eskubideak bi alderdi dituela: ur edangarriarena, eta saneamenduarena. Txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira, bata ederra, freskoa, hitz egiteko enbarazurik sortzen ez duena, eta bestea zikina, kiratsa dariona, desatsegina: hondakin-urak, kaka... Eta bata ez dagoen lekuan, bestea ere ez. Noski, askoz errazagoa da alde ederrari dagokionez aurrerapausoak egitea. Eta krisiak krisi, egin dira aurrerapausoak, nahikoak ez badira ere. Esate baterako, milurtekorako garapen-helburuetako bat zen ur edangarria eskura ez zuten pertsonen portzentajea erdira jaistea, eta hori lortu egin zen. Oraindik ur edangarririk gabeko 700 milioi pertsona daude munduan, baina lehen 1.200 ziren.

Zer baldintza bete behar da pertsona batek ur edangarria eskura duela esan ahal izateko? Adierazleek eboluzionatu egin dute. Hasi ginenean, 2005ean, Nazioa Batuen Garaperenerako

«Ura eskuratzeko etxetik irten beharra dagoenean, harreman estua dago horren eta eskolaratze ezaren artean».

Programak 20:1:1 araua ezarri zuen, hau da, hogei litro pertsonako eta eguneko, gehienez ere kilometro bateko distantziara. Jakina, gure ikuspuntutik aztertuta, alegia, etxeko txorrota zabaldu eta ura aterako dela ziurtatuta izatea egunean gutxienez hamabi orduz (demagun), asko murriztuko litzateke eskubide hori bermatuta dutenen portzentajea. Dena dela, hamabost urteotan irizpideak aldatuz joan gara. Duela hamabost urte, uraren gaiari urritasunaren ikuspuntutik heltzen zitzaion beti; «etorkizuneko gerren helburua ez da izango petrolioa eskuratzea, ura baizik», eta abar. Eta ur-falta egon, egon daiteke momentu eta leku jakinetan, baina batzuetan ez dago jakiterik arazoa ura bera den, edo hirigintza. Urritasuna baino, desberdintasun sozialak dira arazoa. Gure senak aurkakoa iradokitzen badigu ere, munduko herrialde gehienetan ura garestiagoa da pobreen auzuneetan aberatsenetan baino.

Zergatik? Badu logikarik: aberatsen auzoak ondo urbanizatuta daude, eta egoera onean izaten dituzte ur-hodiak eta abar. Urak bere prezioa du, baina sistemek funtzionatzen badute, prezio hori ez da gehiegizkoa. Hala ez den lekuetan, aldiz, kamioi batek joan behar du, ur-ontzia erosi beharra dago... Uraren eta desberdintasun sozialen arteko erlazioa oso-oso estua da. Eta horrez gain, urak zerikusi handia du generoagatiko desberdintasunekin. Kilometro hori oinez egin beharra dagoen lekuetan, emakumeak joan ohi dira ur bila. Edo neskak. Eta ondorioz, eskolara joateari uzten diote. Oso erlazio estua dago, halaber, ura eskuratzearen eta neska gazteen hezkuntza jasotzeko eskubidearen artean. Arrazoi horregatik (ur bila joan beharra), eta saneamenduagatik ere bai. Eskolak saneamendurik ez duen eskualdeetan, edo sexuen arteko bereizketarik gabeko komuna dutenetan, 10-12 urte betetzen dituzten neskek zailtasun asko dituzte eskolara joaten jarraitzeko.

Indarrean dago oraindik 20:1:1 formula? Ez. Adierazleak bilatzea konplexutasun handiko arazoa da, egoera bakoitzerako adierazlerik egokienak ez baitira elkarren berdinak izaten. Ura hartzeko kilometro bat oinez ibiltzea, beharbada, ez da astakeria basamortuko herri nomada batean. Dena dela, nik arlo honetan lanean eman dudan denboran aurrerapauso handiak egin ditugu adierazleei dagokienez. Hasieran, aurrekontuari begiratzen genion. Zer portzentaje bideratzen da uretarako? Eta horrek aztarna ematen dizu, bai, baina zati bat ustelkeriagatik gal zitekeen, beste bat turistentzako hoteleko igerilekurako erabili, beste bat golf-zelairako... Eta pobreen auzoa lehen bezala geratzen da. Gero *input*-ei begira hasi ginen: zenbat kilometro hodi, zenbat biltegi. Baina hori ere golf-zelairako izan zitekeen, biltegia hutsik egon zitekeen, edo mantendurik gabe... Azkenean, adierazle ideala bakoitzak bere bizilekuan ur edangarria zenbat orduz duen jakitea litzateke. Baina esan dudanez ez dago estandar bakarra, errealitate bakoitzak berea du. Beraz, zein da ideala? Inork ez daki. Gainera, ez da gauza bera horri buruzko datuak eskatzea Gipuzkoako Aldundiari,

adibidez, edo biztanle guztiak erregistroan izena emanda ez dauden herrialde bati.

Eta halako herrialdeetara joaten zarenean eurek jakin ez arren (beharbada ur bila joateko luze ibiltzea arrunta delako euren kulturan) giza eskubide bat dutela azaldu behar izaten diezu? Diskurtso hori, hain zuzen, bertako agintariek erabiliko dute, beharbada. Europan ikasi dutenek. Esaten dizute: «Giza eskubideak zuei interesatzen zaizkizue, baina gure herritarrei ez». Haatik, pertsona bat torturatzen dutenean, neska bat bortxatzen dutenean, haren gogoan «giza eskubide» kategoria egon ez arren, badaki hori bidegabekeria dela, eta babesa nahi du. Norbaitek komunitate indigena baten lurra lapurtzea edo ura kutsatzea bidegabekeria da, eta nik nire ibilbidean ikusita daukadana da komunitate horiek direla giza eskubideak betetzea erreklamatzen dutenak. Madrilen, Parisen edo Londresen hezitako goi-funtzionario eta kargudunek, aldiz, argudiatzen dute adituak direla kultur dibertsitatean, eta euren jendeak ez duela giza eskubiderik behar, badituztela arazoei aurre egiteko era tradizionalak. Beste batzuek esaten dute sexu-orientabidearen arazoak mendebaldetarron kontuak direla, eurenean ez dagoela halakorik. «Zergatik duzu jendea espetxean, orduan?». Eta horretaz azalpenik zor ez dutela erantzuten dute.

Zientzia ere aipatzen da Eusko Ikaskuntza Saria jasotzeko arrazoien artean. Alegia, mundu guztiak zientzia eskura izatea? Bai, eta eztabaida historikoa egon da horretaz. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak zientzia aipatzen du, baita 1966ko itunetako batek ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei buruzkoak. Zientziaren garapenaz gozatzeko eskubidea aipatzen da, baita garapen horretan parte hartzekoa ere. Urte askoan, eskubide horren interpretazio instrumentala egin da: zientzia zientzialarien kontua da, eta gainerakook eskubidea dugu haien aurkikuntzez eta asmakizunez gozatzeko. Sendagaiak, teknologia... Kontua da 40ko hamarkadan Aldarrikapen Unibertsala ondu zuen lantaldean eztabaida handia egon zela gaiaz. Baina lehenik, garai hartan zientziari buruzko eztabaidak zer-nolako garrantzia zuen aipatzea komeni da.

Zein zen testuingurua, bada? Hasteko, 1945. urtea oso une garrantzitsua izan zen zientziaren historian, Hiroshiman eta Nagasakin bota zituzten bonba nuklearrak direla eta. Egun batetik bestera, eta esamoldearen esanahirik hertsiena erabilita diot hori, zientziarekiko pertzepzioa aldatu egin zen. Biharamuneko egunkarietan «noraino heldu da zientzia?» galdera irakur zitekeen. Mende hasierako fisikaren botere guztia, suntsipenaren mesedean erabilita. Bi urte geroago, 1947an, Nurenbergeko epaiketak egin ziren, eta naziek egindako esperimentu medikuak atera ziren argitara, Mengeleren kontu guztia eta abar. Ondorioz, zientzia nolabait giza eskubideekin lotu nahi izan zuten Aldarrikapen Unibertsala prestatzen ari zirenek. Eta iritzi bi egon ziren. Talde kontserbadoreago batek

Giza eskubideen alorrean ez ezik, nazioarteko lankidetzan ere eskarmentu oparoa du Mikel Mancisidorrek.

Frustrazioaz eta poztasunaz

Mikel Mancisidorren esanetan, giza eskubidearen eremuan lan egiteak ezintasun-sentsazioa eragin dezake batzuetan. «Ez alferreko lana egin duzula pentsatzegatik, emaitzak lortzeko aurretik porrotak ere egon behar du eta, baina batzuetan frustrazioa sor dezake erraz egitekoa iruditzen zaizun zerbait egiten ez dela ikusteak, batik bat horrek pertsonen sufrimendua eragiten badu». Ifrentzuan, lorpenek dakarten poza dago: «Berriki, parte hartu dut aipatuko ez dudan herrialde batek nesken mutilazio genitala debekatzeko prozesuan; bost urteko lana izan da, eskatu eta eskatu. Debeku egoteak ez du esan nahi oraindik aurrera ablaziorik egingo ez denik, baina neurriak hartzeko eskatu ahal izango da, bai hezkuntzaren eta gizartearen alorretan, bai zigorrei eta poliziak esku-hartzeari dagokienez ere».

zioen «zientzia ondo dago baina zientzialarien kontua da, besteok balia ditzagun haien aurrerapenak, baina besterik ez». Beste taldetxo batek, aldiz, harago joan nahi zuen. «Zientzia da gizakiok zenbait galderari erantzuteko asmatu dugun metodorik onena», argudiatzen zuten, «nola funtzionatzen duen gure munduak, zer harreman-mota dugun naturarekin... Eta denok dugu jakiteko eta interesa agertzeko eskubidea». Horregatik dago eskubide hori kultur eskubideen artean. Inork ez du galdetzen zertarako den ona zure ama hizkuntzaz hitz egitea, edo poesia idazteko eskubidea izatea, edo Gabonak nahi duzun eran ospatzea. Berez ez da ezertarako ona, baina hain dago gure duintasunari lotuta, ukatzea gure nortasunaren oinarrizko osagaietako bat ukatzea izango bailitzateke. Eta zientzia ere multzo horretan dago, baina ahaztuz joan zaigu, eta azken urteetan gogorarazten saiatu gara.

Nolabait mehatxatutako eskubidea da? Bai. Aldarrikapen Unibertsaleko giza eskubiderik ezezagunena da, eta gutxien garatu dena. Horregatik suspertu nahi dugu. Pandemian argi ikusi da zer-nolako garrantzia duen zientziak eskubide kulturala modura. COVID-19rako txertoa dugunean, hura jasotzeko eskubidea bezain garrantzitsua izango da nola egin den eta nola funtzionatzen duen jakitea. ◂

Flashback **Ander Deunako ikasleak Pirinioetan, 1992**

UNAI BREA ▶

Ander Deuna ikastolan mendizaletasun handia egon da betidanik. Aldiro txangoak eta irteerak antolatzen dituen taldea dago, aspalditik diharduena. Argazki honetakoa, aldiz, «estraofiziala» izan zen: Pirinioetako Balaitus mendira igotzekoak ziren zenbait irakasle, eta ez jakin nola, eurakaz batera joatera animatu zen ikasle mordo bat ere. Argazkian ageri diren gehienak une hartan UBI ikasten zebiltzan Ander Deunako neska-mutilak dira, hau da, urte hartan 18 urte beteta edo betetzeko zituztenak, mendian gora eta behera ibili ostean ondo merezitako atsedena hartzen. ◀

ARGAZKIAN:
Ezkerretik eskumara: Janire Zabala, Garikoitz San Martin, Esti Garaizar, Garikoitz Uranga, Jon Ander Esesumaga, Leire Olaran, Txema Unibaso

IRATXE GOIRIGOLZARRIK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora

ALBE Algorfako Bertsolari Eskola

TESTUA
Beñat Vidal Gurrutxaga

DOINUA
Batzutan da argia

ARGAZKIA
Hodei Torres

Iturria

Espero gabe heldu
zaigu izurria,
konturatu orduko
ze une larria!
Zerbitzu publikoa
lehen zen urria...
Hazi egin denean
kale egarria,
agintariek moztu
dute iturria.

Sakelako, smartphone
edo mugikorra,
maskararen gainetik
doa soa horra.
Albistea, haria,
post-*a zein oharra...*
Kaleak galdu baitu
lehen zuen indarra,
internet ei da gure
iturri bakarra.

Ai, iturri ur-gabe
eta herdoilduna,
helduko ete zaizu
jario eguna?
Azal kolorea, beltz,
bai behintzat iluna,
ez zara izango zu
bakarra, laguna,
poliziak lepoa
estutu dizuna.

Musikharian ***Zakillers***

Are you ready?

Buruzapiak, barrak eta izarrak, klub ilunak eta tabako-kiratsa burura ekartzen didan taldearen anaia txikia dugu Zakillers. Sortu bezain pronto desagertu zen, disko bakarra kaleratu eta hiru zuzeneko eman ostean.

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO** ▶

Buruzapiak, barrak eta izarrak, klub ilunak eta tabakoaren kiratsa burura ekartzen didan taldearen anaia txikia dugu Zakillers. Sortu bezain pronto desagertu zen Ipar Ameriketako Rock & Rolla hizpide zuen taldea. 2013an argitaratu zuten euren disko bakarra, *Hyena*; eta hiru zuzeneko eman ostean taldea desagertu zen. Laukote honen ibilbidea, beren Rock & Rollaren antzera, azkarra bezain zikina izan zen. Euskaraz abestu arren, ahoskera yankee oso karakteristikoa erabiltzen zuten, azken urteotan erdipurdiko talde batek kopiatu nahi izan duena. Letra ilun eta metaforikoez beteta, amodio okerrei zein bizitzako askotariko pasadizoei egiten diete kantu nafarrera oso deigarri baten bitartez.

Sexty Sexers talde mitikoak estilo berri bat gerturatu zuen gure herri txiki honetara 2014an, euskara hutsean. Ondoren, agur esan ostean, bertako taldekideek ibilbide ezberdinei ekin zieten. Electric Child-ek (Joseba B. Lenoir) bakarkako bidea hartu zuen; horrez gainera, hainbat taldetan ere parte hartu du,

Hyena

Taldea: Zakillers
Taldekideak:
- **Julen Irazoki: gitarra**
- **Xiker Salaberria: baxua**
- **Inaxio Agara: bateria**
- **Mikel Larratxe: ahotsa**
- **Joseba B. Lenoir: gitarra kosmikoa *Bizi Ala Hil* abestian.**

hala nola Willis Drummond, Sumision City Blues eta Izaki Gardenak. Mikel Larratxe abeslariak, aldiz, buruzapia kendu barik, segituan proiektu berria jarri zuen martxan: Muturbeltz. Talde berri horretan aurrekoaren estiloa mantendu zuen, baina AC/DC talde australiarrari keinu txiki bat eginez. Besteen taldekideen ibilbideez ez dut ezer gehiagorik jakin eta txakur-ikerketa lanak egitea ez da nire trebezia handiena, kar kar kar. Dakidan bakarra da 2011n, zorionez, (lerrook idazten ari den idazle kaskar honentzat behintzat) kide denak berriro batu eta Zakillers taldea osatu zutela. Oraingo honetan, baina, Electric Child gitarra-joleak erdi umezurtz utzi zituen eta abesti bakar batean kolaborazioa egin zuen. Esan beharra dago Sexty Sexers taldearen anaia txiki bihurri eta kaskagogor honek, gaur egun musika-munduan bizi dugun *postureo* nazkagarri hau ezagutu ere ez zuela egin eta gaztetatik erraietan bizi izandako zeozer ikustera besterik ez zutela eman. Xikerren zuzenekoetako hogei zigarroak, Mikelen buruzapia eta alkandora baldar izerdituak, Julenen jeans estuak... Azken finean, Nafarroako Bera Rock Cityko arima gordina. Nik horiek ikusteko aukerarik ez dut izan, baina argi daukat euren zuzenekoa esnatu berri kafe huts bikoitza whiskiarekin hartzea bezalakoa izan behar zela.

2019ko bukaeran Sexty Sexers taldea bueltan zela jakin genuen, bidaia luze honen zikloaren amaiera edo ziklo berri baten hasiera izango den argitzen ez didana. Baina tira, gero eta hurbilago entzuten dut melomano horien esaldi mitikoa: «Berriz galdetuko diat *are you ready for the Rock & Roll*?». ◀

Irakurrian ***Ipuin izugarriak***

Izuak aurpegi desberdinak ditu

Zazpi idazle, zazpi ipuin eta zazpi izu mota desberdin zenbaki magiko horren inguruan. Eta beste horrenbeste estilo eta gai desberdin aukeran, bildumako harribitxi bakoitzari nortasun bakana emanez.

TESTUA: **JOKIN DE PEDRO** ▶

Xabier Mendigurenen batze lanari esker, *Ipuin izugarriak* izena daraman zazapi kontakizun bikainen bilduma irakurri dugu. Ez da arestiko argitalpena, orain hamasei urtekoa baizik. Hala ere, Mendigurenek ahaztu samar edo eskuragaitz zeuden ipuinoi bizi berria eman zien bezala, guk ere, Plentzia-Gorlizko irakurzaleen txokoan, berriz eskuartera ekarri nahi izan ditugu, merezi dute eta.

«Izugarri» kalifikatzaile komuna badute ere, askotarikoak dira narrazioak, zeharo desberdinak, estiloz, planteamenduz, tonuz... Izua sentitzeko era desberdinak daudela erakusten digu bildumak: izua herioari, madarikapenari edo begizkoari, mamuei, jakinezari, absurdoari, ezezagunari... Literaturan, izuzko sentipen hori irakurlearengan proiektatzearen eraginkortasuna begien bistakoa da. Hamaika izenburu, idazle eta azpigenero ere aurki daitezke izuaren borda ilunaren teilatupean, irakurle beldur-gose ausartari ileak lazteko gertu.

Ipuinok duten beste ezaugarri komun bat da literatur lehiaketetan saritu izana. Mendigurenen ofizioak badu zerikusia, hamaika lehiaketatako epaimahaikide izan baita.



Ipuin izgarriak

Egilea: hainbat egile
Argitaletxea: Elkar
Urtea: 2004
Orrialde kopurua: 176
Jatorrizko hizkuntza: Euskara

Labur-labur bada ere, banan-banan komentatuko ditugu.

Isuritako ura ez da batzen ipuinean Begoña Bilbaok herri txiki batean jazorikoa narratzen du. Kalumnia anker batek urteetan eta urteetan izan dituen ondorioak azaltzen dira, gordintasunez. Ederto garatuta dagoen istorio latza, inondik ere.

Ez dut biharko argirik ikusiko Zorion Zamakolaren eskutik dator. 36ko gerrako jazoera batean abiapuntua duen herioaren metafora ederra eta lazgarria, xake partida bat ardatz duelarik.

Etxerako bidean Txilikuren ale ederrean, aitona zahar baten mundua azaltzen zaigu, dasta etnikoa duen ipuin batean. Errotarien ofizioko hizkeraz eta metaforaz apain jantzia.

Kontaktua, Luis Fernandezena: umorea, gaizki ulertuak, hipotesi faltsuak eta ustekabeko bilakaera-amaierak dituen ipuina da, atentatu baten itzala edo hurbiltasuna erabiliz irakurlearen arreta eta jakin-mina pizteko.

Adibidez, Ana Isabel Moralesen ekarpena, absurdoaren ipuinen eredu da, autobus baten barruan gertatzeak sor dezakeen itolarria trebeki erabiliz.

Foaf tale Julen Gabiriaren kontakizun kolokiala dugu, *Friend of a friend´s tale* azpigeneroak izenburua ematen diona. Autostopean leku zehatz batean misterioski agertzen den pertsonamamuaren elezahar urbanoan oinarritua. Idazleak ederki ematen dio jira eta bai bukaera ere, ezusteko asmotsua erabilita.

Briko-higuina izenarekin, Harkaitz Canoren mikroipuin batek ixten du bilduma. Mendeku txiki baina zikin eta maltzur bat egiteko jarraibidea ematen da, gomendio gaizto gisa. Umore beltzaren, ironiaren eta errealismo zikinaren arteko ipuintxo dibertigarria eta originala. ◀

«Akordiorik lortu ezean, enpresak dirua bueltatu beharko luke»

Erreklamatu ekimeneko abokatuek azaldu dutenez, erabiltzaileen eskubideen gaineko araudia aldatu egiten da kontratutakoaren arabera. Ez da gauza bera bidaia

Uda honetan aspaldi gogoan genituen bidaia asko zapuztuko dira, eta horrek aire-konpainiakaz arazoak izatea ekar dezake. Erreklamatuko abokatuek aholku batzuk eman dizkigute, kasu horretan zer egin jakiteko.

IKER RINCON MORENO · UNAI BREA ▶

Aste Santuko oporren porrotaren ondoren, udari begira dago jende asko asteetako konfinamendua urrun uzteko esperantzan. Hala ere, koronabirusak eragindako alarma-egoerak baztertu ezinezko zalantza ugari utzi ditu mahai-gainean; atzerrira joateko aukera egongo da? Nora? Aurretik hartutako bidaiakaz zer gertatuko da? Oraindino ere galdera horiei ziurtasunez erantzutea erraza ez den arren, horren nondik norakoak ezagutzeko Erreklamatu iniziatibako abokatuakaz egin genuen berba udaberrian, eta hauxe da udako oporrei begira kontatu zigutena. Zehaztu dutenez, elkarrizketa honetan adierazitakoek indarrean jarraitzen dute oraingo egoeran ere.

Bertan behera

«Hirugarren aukera bat eskaintzea ahazten ari zaie konpainiei eurak direnean hegaldiak bertan behera uzten dituztenak: dirua bueltatzea, alegia»

Erabiltzaileek zer egin beharko lukete konpainiak berak bidaia bertan behera uzten badu? Ezberdindu behar ditugu bidaia konbinatuak eta kontratatutako zerbitzu solteak. Hau da, araudia ezberdina da batera kontratatzen badira hegaldia, ostatua eta txangoak (bidaia konbinatua), eta zerbitzu horiek bereizita kontratatzen badira (enpresa ezberdinekin edo momentu ezberdinetan. Lehenengo kasuan, antolatzaileak eskubidea dauka urtebeterako bonu bat eskaintzeko, beste bidaia batean erabiltzeko, ordaindutako prezio berdinekoa. Erabiltzaileak ez badu epe horretan erabiltzen, dirua berreskuratzeko eskubidea dauka. Bigarren kasuan konpainiak eskainitako aukeren artean aukera daiteke, dirua bueltatzea horien artean egon behar dela jakinda.

Eta bidaiariak bertan behera utzi nahiko balu, zeintzuk pauso jarraitu beharko lituzke? Bidaia konbinatua bada, bi aukera

konbinatua hartzea (hegaldia, ostatua eta txangoak batera), edo zerbitzu solteak.

ditu. Bata, bidaia gauzatuko den lekuan (helmugan) arazo bat dagoela bidaiaz gozatzeko argudiatzea eta frogatzea, bidaiaren prezio osoa berreskuratzeko. Bestea, dirua berreskuratzea penalizazio bat ordainduz.

Zerbitzu solte bat bada (hegaldia edo ostatua, edo besteren bat), eta alarma-egoera bitartean gauzatu behar bazen, kontratuarekin atzera egitea eskatu diezaioke konpainiari. Kasu horretan, legeak parte biei fede onez negoziatzeko agintzen die, 60 egunez. Alternatiba baten inguruan akordiorik lortu ezean, enpresak dirua bueltatu beharko lioke kontsumitzaileari.

Hirugarren aukera bat eskaintzea ahazten ari zaie konpainiei eurak direnean hegaldiak bertan behera uzten ari direnak: bidaiagatik ordaindutako dirua bueltatzea alegia, legeak horrela ahalbidetzen du eta.

Zeintzuk aukera eskain ditzake bidaia-agentziak edo konpainiak bidaia bertan behera utzi nahi izango bagenu? Bidaia konbinatua bada, eta ez badiogu aipatutako arazoa argudiatzen eta

600 €

Hegaldiaren distantziaren arabera, konpainiak kalte-ordain bat emateko beharra du hegaldia hiru ordu baino gehiagoz atzeratu ondoren; 250 eurokoa 1.500 kilometro baino gutxiagokoa bada, 400 eurokoa 1.500 eta 3.500 kilometro artekoa denean eta 600 euro 3.500 kilometrotik gorakoen kasuan.

250 €

Atzerapen baten ondoren hegaldia bertan behera utzi badute, bi ordu baino gutxiagoko atzerapena jasota 125 euroko kalte-ordaina eman beharko luke konpainiak; handik gorako denboran, aldiz, 250 euro.

Mugen egoera

- **Europar Batasuneko hainbat herrialdek mugak ezarri dizkiete espainiar Estatutik doazenen bidaiariei. Orokorrean mugak zabalik daude ekainaren 15etik aurrera EBko herritarrentzat, baina herrialde bakoitzak bere arauak ezarri ditu.**
- **Europar Batasunak kanpoko hamabost herrialdetako herritarren joan-etorria onartu du uztailaren 1etik aurrera: Aljeria, Australia, Kanada, Georgia, Japonia, Montenegro, Maroko, Zeelanda Berria, Ruanda, Serbia, Hego Korea, Tailandia, Tunez, Uruguai eta Txina.**

frogatzen, zentzuzko penalizazio bat kobratu dezake bidaiaren antolatzaileak. Kontratu askotan penalizazio hori aurreikusita dago. Zerbitzu solteak badira, adibidez hegaldi bat, enpresak edozein motatako alternatiba eskain dezake (bonuak, beste hegaldi bat, deskontuak, etab.). Egunotan ikusten ari garenari jarraituz, konpainiek eta agentziek eskaintzen ari diren bi aukerak hurrengoak dira: data aldatzea (batzuetan gastu gehigarri batekin) edo bidaiagatik ordaindutako kantitatearen balio berbereko bonu bat, noski, beste momentu batean erabiltzeko.

Gehienetan data-aldaketak eskaintzen ari dira, baina, aukera hori egokia ez dela uste badu bidaiariak, zer egin dezake? Aipatutako kasuak ezberdindu beharko genituzke. Hegaldi solte bat bada, eta haiek utzi badute bertan behera, ordaindutako dirua bueltatzea exijitu dezakegu.

Posiblea litzateke orain bertan behera uztea bidaia berme guztiakaz? Ez. Oraindik ez dakigu zer nolako arazoak egongo diren udan zehar. Bidaia konbinatu bat badugu, eta guk geuk uzten badugu hori bertan behera orain, helmugan dagoen arazorik azaldu gabe, penalizazio bat ordaindu beharko dugu. Eta hegaldi solte bat badugu, alarma-egoeraz kanpo gauzatu behar dena, ezin izango dugu atzera egin kontratuarekin. Hori bai, zerbitzu jakin batzuek ahalbidetzen dute atzera egiteko eta dirua berreskuratzeko (adibidez internetez kontratatuko ostatuak). Baina hegaldi solteekin, oro har, alarma-egoeraz kanpo bada, ezin dugu atzera egin.

Eta zer gomendatuko zeniokete udan bidaiatu gura duten pertsonei? Ezin dugu errealitatea ukatu, eta gaur egun ditugun informazioei jarraituz, nahiz eta oso zehatzak ez izan, ezta guztiz fidagarriak ere, badirudi udaldian mugapenek indarrean jarraituko dutela. Beraz, herrialdearen arabera, espainiar Estatutik kanpoko bidaiak egitea zaila izango dela ematen du, eta barnekoekin ere kontuak ez daude argi (barne mugikortasuna araututa eta onartuta dago daborduko). Hori guztiori kontuan izanda, bakoitzak erabaki beharko du zer egin eta zer arrisku hartu, baina agerian dago egoera ez dela onena. Nik, aurreko gomendioak kontuan hartuz, momentuz itxaron egingo nuke, zer gertatuko den jakiteko. Dena dela, onena abokatu bati aholkua eskatzea da.

Hegaldiez berba egin dugu, baina hotel eta egonaldiak erreserbatuta baldin badaude, zeintzuk aukera daude horiek bertan behera uzteko? Kasu hauetan, banatuta hartu baditugu, eta alarma-egoera zen bitartean gauzatu behar badira (daborduko alarma-egoera bertan behera dago espainiar Estatuan), atzera egiteko eskubidea daukagu. Lehen esan dugun bezala, behin atzera egite hori adierazita enpresari, 60 eguneko epe bat irekitzen da fede onez negoziatzeko. Ez balitz akordiorik lortuko enpresaren eta bezeroaren artean, dirua bueltatu beharko ligukete. ◂

Irune de la Maza Olagorta Euskarabenturako koordinatzailea

«Aurtengo espedizioan ezin genuen segurtasuna bermatu»

Euskarabenturaren 2018ko edizioaren amaiera, Bizkaia Zubiaren ondoan. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako eta diasporako 120 gaztek hartzen dute parte espedizioan.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **EUSKARABENTURA** ▶

Uztailean hirugarren edizioa egitekoa zuen Euskarabenturak, 16-17 urteko bitarteko gazte euskaldunentzako espedizioak. Tamalez, osasun-krisiak egitasmoa datorren urterako uztera behartu du, eta horren ordez, aisialdia euskaraz gozatzeko bestelako proposamenak egingo dituzte antolatzaileek, sare sozialen bitartez. Irune de la Maza ekimenaren koordinatzaileetako bategaz berba egin dugu aurtengo egoera bereziaz eta ekimenaren ezaugarriez.

Azkenean, bertan behera. Hala da. Apirilean, denbora irabaztearren, erabaki genuen uztailean beharrean abuztuan egitea, baina ez genekien guztiz seguru egin ahal izango genuen ala ez. Maiatzaren bukaeran erabaki bat hartu behar genuen, antolaketa denborarekin egiteko. Gure lehentasuna espedizioa segurtasunez egitea izan da beti, eta kasu honetan ezin genuen hori bermatu, beraz, azkenik edizioa atzeratzea eta aurten ez egitea erabaki dugu.

Horrelako ekimen batek kontaktu fisikorik gabe zentzurik ez lukeela azaldu zenuten. Bai, aisialdian egiten diren ekintza guztietan bezala, Euskarabenturan harremana sortzen da, familia bat ia. Talde handia gara eta distantzia soziala bermatzea oso zaila da, batetik; bestetik, ez du zentzurik horrela ibiltzeak, jendearen atzetik, distantzia batera egotera derrigortuz. Espedizioan sortzen den giroa hautsiko litzateke.

Zer alternatiba eskainiko duzue? Gazteen sare handiena gaur egun Instagramen dago, eta guk harreman asko dugu haiekin horren bitartez. Orduan, erronka birtual batzuk botako dizkiegu gazteei uztailean, Euskarabentura 2.0 izenarekin, eta sariak izango dituena. Bi eta bost lagun bitarteko taldeetan egiteko. Segurtasuna bermatuta egongo da, eta gazteak euren inguruan ibiliko dira.

Erronka berezia diasporako gazteentzat

«Aurreko bi edizioetan Argentinako, Washingtoneko eta Stockholmeko gazte euskaldunak egon dira Euskarabenturan», azaldu du Irune de la Mazak; «gure sarean dauden gazte horiei erronka bota nahi izan diegu, diasporarekin lotura sinbolikoa egiteko». Hain zuzen ere, ibilbideak gizartea proposatu diete. Ondoren, txango horietan pilatutako kilometroak aplikazio batez zenbatuko dituzte, ea gazteak gai diren Mauletik Argentinara, Washingtonera eta Stockholmera dagoen distantzia «betetzeko».

Zergatik sortu zen Euskarabentura? Elkartean dauden bizpahiruk Ruta Quetzalen parte hartu zuten, eta esan zuten: «Espedizio hau Euskal Herrira eraman behar dugu». Alde batetik gazte-talde bat sortzeko, azken batean gure etorkizuna baitira, bestetik Euskal Herria ezagutzeko, eta hirugarrenik kultura eta bizikidetza sustatzeko. Eta hori guztia euskaraz, euskararen inguruan eta euskarari indarra emanez.

Euskara sustatzea lortzen da? Bai. Parte hartzen duten gazteek galdetegi batzuei erantzuten diete euskararen erabilerarenen inguruan: bat espedizioa egin aurretik, horrela guk badakigu zer-nolako ingurutik datozen, zer hizkuntza-ohitura duten...; beste bat espedizioaren azken egunean, eta horren bidez neurtzen dugu zer aldaketa izan duten, izan badute; azkenik, sei hilabetera beste bat egiten diegu, hizkuntza-ohituretan eraginik izan ote dugun jakiteko. Horrez gain, espedizioan zehar erabileraren neurketa egiten da. Orain argitaratuko ditugu 2019ko espedizioko datuak, eta horietako bat da elkarrizketen % 83 euskaraz egin zela. Pozik gaude datu horrekin.

Euskarabenturaren ibilbidea Maule eta Getxo artekoa da. Zergatik aukeratu duzue hori? Ez dago arrazoi zehatzik. Tira, hor dugu Donejakue bidea, dagoeneko eginda dagoena eta segurtasuna ematen duena talde batek alde batetik bestera bidaiatzeko. Bidea ezagutzeak ere antolaketa errazten du; hala ere, aurten Nafarroako zatian aldaketa txiki batzuk egin nahi genituen, eta asmoa da urtez urte aldaketak egitea, garbi izanda zazpi lurraldeetatik pasatu behar dela. Lehentasunetako bat da hori, gizateriaren ondareak bisitatzearekin batera. ◀

Bizarra Lepoan Bapiruke Udan jolasten

«Udako Bapirukeren eskaintza berrasmatu behar izan dugu»

Ez dituzte ekintzarik egingo leku itxietan, soilik aire zabalean, hala nola udalerriko plazetan, berdeguneetan eta hondartzetan. BAPIRUKE

Bapiruke Udan Jolasten egitasmoa martxan jarri du Bizarra Lepoan euskara elkarteak. COVID-19ak eragindako egoera berri honetan, urteroko udalekuen alternatiba da hori, umeen jolasteko eskubidea «ezinbestekoa» delakoan ikasteko. Hala, osasun-neurri denak hartuta, uztailaren 1etik aurrera euskaraz olgatzeko aukera izango dute umeek Getxon.

IKER RINCON MORENO ▶

COVID-19aren pandemiak eragindako egoera berriak ezinezkoa egin du aurten ohiko udalekuak egitea. Hori dela eta, elkarteek egitasmoak berrasmatu eta alternatibak planteatu behar izan dituzte umeek udaldian kaleak berreskuratu eta jolasean gozatu ahal izateko. Horren adibide dugu Getxoko Bizarra Lepoan euskara-elkartearen kasua; udaberriko koloniak bertan behera utzi ondoren, udako ohiko Bapiruke eraldatu eta eskaintza berezia prestatu du uztailerako.

Aurten ez dituzte udalerriko eskolak erabiliko egitasmoak iraun bitartean ekintzak egiteko, «ezta eremu txikiak ere. Dendena aire zabalean izango da, Algorta, Romo eta Andra Mari inguruko plazetan, berdeguneetan eta hondartzetan», azaldu du Alaitz Villate Bizarra Lepoaneko kideak. Ordutegiari dagokionez, 09:30etik 13:30era egingo dituzte jarduera denak, uztailaren 1etik 30era, txanda bitan banatuta; «egoera berezi honetan ez da egun osoko txangorik egingo», nabarmendu dute elkartekoek. Taldeak ere txikitu dituzte, adinaren araberakoak, zortzi neska-mutilekoak. «Udalekuetan taldeak hamar umekoak izaten ziren, baina gaur egungo egoeragatik taldeak zortzi neska-mutilera mugatu behar izan ditugu, denak begirale banarekin». Mikel Astorki elkarteko kideak azaldu duenez, «babes-neurri modura, talde horiek isolatuta egongo dira. Bermatuko dugu taldekideek euren artean soilik harremana izatea, beste taldekoekin nahastu barik». Horrez gainera, ohiko segurtasun-neurriak izango dituzte, hala nola gel hidroalkoholikoak eta maskarak erabiltzea uneoro. Era berean, umeei tenperatura ere hartuko zaie, inork sukarrik ez duela ziurtatzeko. Ume batek COVID-19an positibo emango balu, bere talde osoaren jarduna etetea baloratuko luketela azpimarratu dute Bizarra Lepoan elkartekoek: «Gutxieneko segurtasuna bermatu behar dugu umeentzat».

Segurtasuna bermatu

«Taldeak isolatuta egongo dira. Taldekideekin soilik izango dute harremana, beste taldeekin nahastu barik»

Jolasteko beharra

«Jolasa ezinbestekoa da umeentzat, esperimentatzea, modu horretan ikasten dutelako. Beharrezkotzat jotzen genuen hau eskaintzea»

Elkar ukitzearen kontuari dagokionez, gurasoek eta begiraleek argi dute guztiz ekidinezina dela hori umeen artean: «Egitasmoa martxan jartzeko baldintzetan argi utzi dugu hori, eta gurasoek hori ere onartu dute. Udan Jolasten egitasmoa martxan dagoen bitartean taldeko neska-mutilak elkar egongo dira egunero, hamar edo hogei egunez, eta onartu beharra dago elkar ukituko dutela jolasean. Dena dela, gu saiatuko gara horretarako ahalik eta aukera gutxien egon dadin». Hala, beharrezkoa ez den eta kanpokoa den materialik erabiliko ez dutela ziurtatu dute, «ezin dugulako ziurtatu material horrek segurtasun-neurri denak bete dituela». Ondorioz, ez dite eskulanik egingo, ezta hamaiketakorik banatu ere.

KALEA BERRESKURATZEKO BEHARRA. Konfinamenduaren ondorioz, umeak etxean itxita egon dira denbora luzez, kalean eta beste neska-mutilakaz jolastu ezinik. «Jolasa ezinbestekoa da umeentzat, esperimentatzea, modu horretan ikasten dutelako. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen genuen udan aisialdiari begira balio hezitzailea duen eskaintza bat egitea, baita euskaraz jolasteko aukera eman ere, bi hilabeteotan ume askok ez dutelako izan euskararekin apenas harremanik izan», azaldu dute elkarteko kideek. ◀

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Koloreztatu egizu troglodita nahieran

Itzala

Zein da trogloditaren itzal zuzena?

Zortzikoa

Aurki itzazu irudi bi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira denera.



A	A	B	A	L	M	A	A	A	A	A	A	A	A	M	B
S	S	K	R	E	A	S	T	O	M	A	T	E	A	S	A	A
D	D	J	R	T	Z	D	D	D	G	A	G	I	D	D	I	S
F	F	U	A	X	K	O	F	F	F	F	F	U	F	F	T	U
G	G	O	U	A	U	G	L	G	G	G	G	R	G	G	A	R
U	U	N	T	V	R	U	U	I	U	E	U	A	U	U	S	D
A	A	B	Z	B	Y	A	B	A	O	A	A	Z	A	A	T	A
E	E	A	A	M	T	E	U	E	E	A	E	A	E	O	U	I
L	L	W	L	A	W	S	K	W	L	L	L	K	L	L	N	N
K	A	E	K	R	E	K	Z	U	O	L	I	B	A	K	I	D
N	Z	I	N	R	O	I	N	Y	H	N	L	N	I	P	Z	I
J	T	O	A	U	L	M	O	Z	P	I	N	A	R	I	E	J
A	A	N	R	B	J	A	A	S	J	P	O	B	I	H	R	A
B	G	I	R	E	U	U	E	N	T	S	A	L	A	D	O	R

Entsalada bat, hizki-zopatan

Entsalada hau osatzeko behar izan ditugun gai guztiak hizki-anabasa horretan daude. Aurkitu.

Zein da zein

Ea asmatzen duzun zakur bakoitzaren izena.



1 _____

2 _____



3 _____

4 _____



5 _____



6 _____

- Tximistek eta Piratak belarriak tente dituzte.
- Bihurriren eta Feldespatoren isatsak luze eta iletsuak dira.
- Alaitzek eta Bihurrik bibote luzeak dituzte.
- Pitxitak bibote motzak ditu.
- Feldespatok eta Tximistek mihia agerian dute.

Pa!

Idatzi maitasun gutun bat zure buruari. Gero, apaindu orria eta gutun-azala.



Blai alai!

Zer dira aurpegiak ahorik gabe...

Zer pentsatzen ari diren asmatzea zaila da, ezta?

Marraztu iezaiezu zerbait maskaran, alai daudela eman dezan.



Eman hamabostekoa...

Erlauntza biek berdinak ematen dute baina aldeak daude batetik bestera. Ikusten al dituzu? Hamabost dira guztira.



Getxoko entitatea zara eta Euskaraldian parte hartu nahi duzu?
¿Eres una entidad de Getxo y quiéres participar en el Euskaraldia?

Animatu eta izan gaitezen Getxoprest! ¡Anímate y seamos Getxoprest!

Informazio gehiagorako edota entitate moduan izena emateko: www.getxoztarrak.eus
Para más información y para inscribirse como entidad: www.getxoztarrak.eus